HARKAITZ ZUBIRI

Zakur kale

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2007 Harkaitz Zubiri
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2007ko martxoa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Arranoaren lurrak dira. Eremu honetan errari dabil Kainen itzala.

Campos de Castilla
ANTONIO MACHADO

Soilik lortutakoa lortzeko esperantza izan dute, eta espero ez zuten ezer ez dute lortu (...) Horrela betierekotzen da orden soziala.

La Reproduction
PIERRE BOURDIEU

Kontu handiz ibili behar dugu gure iritzia eta borondatea beste norbaiten esku uztearekin. Egiazko eta gezurrezko profetak bereiztea zaila denez, hobe da profeta guztiekiko mesfidantza izatea; hobe da errebelazio moduan erakusten zaigun egiari uko egitea, nahiz eta egia horren sinpletasunak eta argiak distira handia izan, nahiz eta egia hori, doan gureganatzen dugunez, erosoa izan. Hobe da egia apalagoekin eta ez hain liluragarriekin konformatzea.

Se questo è un uomo
PRIMO LEVI

Ezer ez da dirudiena. Horregatik ibiltzen naiz beti zalantza airean.

Zweifellos
KARL SCHWEPPES

Hura izan da

Ospitalean zain aurkitu du emaztea, burumakur.

– Ondo al zaude? –galdetu dio senarrak.

Emazteak hots batez erantzun du, agian baiezkoa adierazi nahian.

Medikuarekin bakarka hitz egitera joan da gizona. Kezkatua dirudi medikuak. Emakumeak osatzeko hilabeteak beharko dituela iradoki dio.

– Kolpe gogorrak jaso ditu. Poliziarekin hitz egin beharko zenuke –aholkatu dio.

Emaztearen albora itzuli da senarra. Izutu egin du haren aurpegi zurbilak. Indartsua izan da beti emaztea, pentsatu du gizonak, baina nekez eutsiko lioke inork honelako zerbaiti.

Orain gertatu behar zuen, erretiroa hartu ondoren, hainbeste urtetan Abegi SAren bulegoetan aulkiari itsatsita egon ondoren. Zenbat buruko eta bizkarreko min, Donostian bizimodu apal bat mantendu ahal izateko. Erretiroarekin, egun osoa beren buruei eskaintzeko asmoa zuten. Gizonak nahikoa lan badauka bizkarreko mina ba-

retzen eta gehiegi ez erretxintzen. Batzuetan ezin izaten du ohetik altxa ere egin. Umetatik du gorputz ahula. Eskerrak gaztetatik emaztea alboan eduki duen, dena errazten. Emakumeak ez du sekula eritasunik izan, tarteka tristura egun batzuk. Biak makal daudenean bakarrik sortzen da zailtasunen bat. Ez dute lagunduko dien inor, eta noiz edo noiz elkarrentzat traba izango dira.

Emakumea ezin batean doa ospitaleko korridorean barna. Inoiz ez du emaztea gaur bezain lur jota ikusi.

Zer basapiztia motak egin diezaioke horrelako zerbait zahartzen ari den emakume bati? Gorrotoa, pentsatu du gizonak, hori bai animalia bortitza eta ezustekoa, segundo batean erraldoi bihurtzen dena.

Kotxean sartu direnean, barkamena eskatzear egon da senarra. Baina ez daki zergatik eskatu beharko liokeen. Eta isilik geratu da, gauari begira. Gero eta hotzago dago kanpo aldean.

Errepidean behera hiriko farolen argiak ikusten dira Donostia isilean. Gabon gaua da etxe gehienetan. Beraienean ez. Edozein asteburutako afaria egiten dute urtero, gauza berezi gutxi

batzuk gehituta. Ez dute arau estandarretara moldatzeko presiorik sentitzen aspalditik. Inguruan ez dute lan hori hartuko duenik. Emaztearen gurasoak laurogeietan hil ziren, eta ahizpa Alemaniara ezkondu zen. Uko egin zioten semealabak izateari, eta oraindik adiskide diren senide bakarrak, gizonaren anaia eta haren emaztea, Durangon bizi zaizkie; haiek Gabonak emaztearen senideekin egiten dituzte, eta gero Urtezaharrean beraiekin bi egun pasatzera etortzen dira Donostiara. Anaiarekiko harremana mantentzeaz biziki pozten da gizona. Horretan ere emazteak lagundu izan dio. Bera alboan edukiko ez banu, akabo nire kemena, pentsatzen du maiz gizonak.

Martxan jarri du kotxea. Abiatu aurretik kosta egin zaio albora begiratzea. Emaztea kristaletik harago hutsari so sumatu du. Jabetu da beraien arteko elkarrizketak nabarmen aldatuko direla. Elkar ezagutu zutenetik honetaz eta hartaz hitz egin izan dute. Etorkinei buruz, esate baterako. Kanpotarrek mesfidantza eragin diote beti emazteari. Nik galiziarrak besterik ez ditut ezagutzen, erantzun zion noizbait senarrak; iruditzen zait

etorkinen artean denetik dagoela, geure artean bezalaxe; hemen kaleko zakurrak bezala hartzen ditugu etorkin berriak, eta aukeran otzanegiak direla uste dut; guri halako tratua emango baligute, auskalo zenbat zakurkeriatarako gai izango ginatekeen. Emakumeak, bere ahizpa gogoan, onartu izan dizkio horrelako iritziak, baina gero hori dena sinetsiko ez balu bezala jokatu du sarritan.

Gizonak ez du uste kontu horiek berriro aterako dituztenik.

Groseko Katalunia plazaren erdian gertatu da, arratsaldeko bostak aldera. Minutu erdia ere ez du iraun.

Bakarrik gaude munduan, pentsatu du gizonak. Ez du ulertzen nola inork ez duen laguntzeko ardurarik sentitu. Erasotzailearen jokabideak ere harri eta zur utzi du gizona. Eskatu dion une berean eman dio poltsa emazteak eta, hala ere, gazteak behin eta berriro kolpatu du. Bizi baldintza okerrenek ere ez lukete halako bortizkeriarik zurituko, pentsatu du.

Orain emaztearekin afaldu eta dena ahaztu nahiko luke.

– Afaria prest neukan ospitaletik deitu didatenean. Badakizu, urtero bezala, afari normaltxoa. Bueno, gauza berezi bat egiten saiatu naiz arrainarekin.

Emazteak ezpainak mugitu ditu, pixka bat besterik ez.

Emaztearen ezintasuna eta umiliazioa bereak balira bezala sentitu ditu senarrak.

Ibai ertzeko errepidean zehar, Mundaizko zubi pareko semaforoan gelditu behar izan dute.

Bat-batean, aztoratu egin da emaztea.

Semaforoa berdean jarri denez, kotxea martxan jarri du gizonak.

– Gelditu! –oihu egin du emakumeak–. Hura izan da! Gelditu kotxea!

– Zer?

Emakumeak ezkerrarekin indarrez altxa du eskufrenoa. Kotxea oso zakar gelditu da. Gizonak bolantea jo du buruaz. Ispiluari begiratu dio berehala: ez dator kotxerik atzetik. Gabon gaueko afari ordua da.

– Horrek egin dit! Horrek!

Emakumea atea ireki nahian hasi da, zango batean igeltsua eta eskuineko besoa lepotik beherako zapian bilduta.

– Egon hemen. Banoa ni.

Gizona korrika atera da eta kotxetik gertu zegoen gaztea ziztu bizian ihesi doala ikusi du. Atzetik abiatu den arren, azkarregia da beretzat. Kotxerantz begiratu du. Emaztea urrunera so dago. Emazteari zor diola pentsatuz jarraitu du bila.

Ezin izan du aurkitu. Kotxera sartu eta isilik segitu du aurrera.

Ehun metro aurrerago, gizona bere sabelean sentitzen duen korapiloan pentsatzen hasi den une berean, emaztea oso urduri mugitu da berriro.

– Begira, hor dago!

Gizona errepideari erreparatu gabe irten da kotxetik. Inguruan zebilen gazte bat kale kantoian desagertu da. Harantz abiatu bezain azkar jabetu da gizona bere ahultasun fisikoaz. Arnasestuka doa, bihotza lehertu beharrean, eta gazteak berriro ihes egingo diola pentsatuz larritu

da. Berehala aurkitu du ordea, erakusleiho bati begira.

– Disimuluan? Lehen ihes egin didazu, baina orain ez zara urrutira joango.

Gazteak kopeta zimurtu du eta beste alderantz abiatu da.

Gizona bere gorputz xingleaz gogoratu da berriro, eta arrapaladan joan da zabor artean ikusi duen makila bat hartzera. Sendoa da. Seguruago sentitzen da orain. Mutilak ordurako ihes egingo zuela bururatu zaio, eta bere onetik aterata ekin dio lasterka egiteari. Zebra-bidearen parean topatu du gaztea.

– Zergatik egin duzu?

Zer esaten ari den galdetu dio gazteak. Gaztelaniaz galdetu dio orduan, baina gazteak ezer ulertu gabe segitzen duela dirudi. Gizonak eskuan daraman makilari begiratu dio. Gazteak argala eta ahula ematen du. Gizona oroitu da bera ere halakoa zela gaztetan, eta ausardia gabekoa gainera.

– Zergatik egin duzu? –galdetu dio gaztelaniaz.

Gazteak nazka aurpegia jarri dio.

Gorrotoak bultzatuta egingo zuen, pentsatu du gizonak. Auskalo zerk eraginda. Baina gorrotoa. Orain sentitzen dudanaren tamainakoa behintzat. Zehatuta utzi dit emaztea.

– Pozik egongo zara, ezta? –errepikatu dio bi aldiz.

– Zoaz etxera, zahar alua! –oihu egin dio mutilak gaztelaniaz.

Aguretzen ari gara, baina zorrak kitatzeko gai gara oraindik, pentsatu du gizonak.

Gaztea hizkuntza ezezagun batean mintzatzen hasi zaio. Imintzio zakarrak egiten ari da. Gero eta haserreago dagoela dirudi. Gizona jarrera horrekin gehiago sutu da eta, bere burua-rentzat ezustean, beste norbaitek gidatuko balu bezala, makilaz buruan jo du gaztea. Haren oihuak entzun ditu. Baina gizonak kolpeka segitu du, gorputz osoan zigortzen. Geldiaraziko duen ezer ez dagoela sentitu du. Gazteak konortea galdu duela jabetu denean, makila hautsiaren ezpalez eta odolez zipriztindutako gorputz etzanari azken begiratua egin eta buelta erdia hartu du.

Kotxera itzultzen ari delarik, indartsu sentitu da aspaldiko partez. Zereginak beteta.

Gidariaren eserlekuan jarritakoan, zuzen begiratu dio emazteari:

– Egin beharrekoak eginda daude. Orain etxera joango gara. Ondo garbitu eta, nahi baduzu, arraina afalduko dugu. Eta bestela, ohera goxo-goxo.

Emazteak ez du ezer esan.

Aurrera egin dute farolek argitutako errepidean.

Gros auzoko Pinares plazaren parera iritsi direnean, aztoratzen hasi da emaztea:

– Gelditu kotxea! Hori izan da! Gelditu kotxea!

Gazte bat ikusi dute autobus geltokian eserita, zigarro bat erretzen.

Kotxearen abiadura moteldu du.

– Zer?

– Hori izan da!

– Nola izango da, ba, hori? Bestea Amaran utzi dugu duela hiru minutu. Ez da kotxea baino

azkarrago joateko gai. Lan handiak izango ditu dagoen lekutik altxatzeko ere.

Emaztea isildu egin da.

Senarrak aurrera segitu du, motel, albora begiratzeko ausardiarik gabe.

Mirakruz eta Ategorrieta kaleetan ez da kotxerik ageri. Bakarrik daude.

Jai Alaiko trenaren zubi azpia gurutzatzen hasi direnean, gazte bat maldan behera oinez datorrela ikusirik, emaztea kristala kolpatuz hasi da garrasi batean:

– Hori izan da! Gelditu kotxea!

Ez du kotxea gelditu, ezta moteldu ere. Aurrera darrai errepide bakartian.

Gizonak badaki etxera iritsi aurretik emaztearen esaldia behin baino gehiagotan entzun beharko duela.

Umetan zeinen ahula eta koldarra zen gogoratu du berriro. Negar egingo luke orain.

Etorriberria eta bere lagunak

Neska etorriberria bazterretara begiratu gabe irten da bulegotik. Etxera iritsi eta mutil-laguna ikusi bezain azkar lehertu da:

– Zer egingo dut orain?

Abegi SAn hasi zenetik estu eta zikin hartu izan du Edurnek, bere saileko buruak. Lehenengo, saileko guztientzat kafea ekartzeko eta fotokopiak egiteko eskatzen zion. Gero, saileko lanaren zama handiena neska etorriberriaren gain uzten hasi zen, artean Edurne inoiz ez bezain-bestetan bulegotik kanpo joanda. Eta hala ere, etengabe gutxiesten ditu etorriberriak egindako lanak.

Egoera koska bat gehiago estutu zen. Etorriberriari ordenadoretik dokumentuak desagertzen hasi zitzaizkion. Inoiz frogatu ezingo duten arren, saileko guztiek ezagutzen dute erruduna.

– Ez dakizu zer egin didan orain! –esan dio mutil-lagunari.

Duela bi hilabete txosten potolo bat agindu zion Edurnek. Asteetan buru-belarri jardun du horretan.

– Gaur jakin dut, nire ordenadoretik txostena hartu, bere izenez sinatu eta zuzendaritzari eman diola. Ulertzen? Ez dit soilik asteetako lana lapurtu, aurki iritsiko baita nire kontratuaren amaiera, eta argi dago Edurnek ez duela nire alde hitz egingo; bera da gure taldearen arduraduna eta, beraz, taldeko kontratuak berritzeko erreferentzia nagusia. Zuzendaritzakoek azken asteotan zertan ibili naizen galdetzen badidate, ezingo diet ganorazko ezer erantzun. Eta orain-dik okerragoa izango litzateke Edurneren aurka hastea.

Mutila ez da neska baretzen saiatu. Edurneren gisako makina bat ezagutzen du berak ere, eta halakoei buruz direnak eta ez direnak botatzen hasi da.

Neskak berdin egin du.

Eta betikoan katramilatu dira: bizi direneko lau pareta hauek ordaindu artean, lau pareta hauetatik kanpo jarrera otzana hobetsiko dute, eta lau pareta hauen barruan, aldiz, husteko li-

zentzia emango diete beren buruei. Babesten dituen etxeak harrapatuta dauzka. Bankuaren arnas-hotsa senti dezakete garondoan. Eskua zabal-zabalik luzatzen die hilero, gaixotasun kroniko baten sintoma balitz bezala.

Denei lepoa moztuko dietela orroka agindu ondoren, isilik geratu dira. Barealdi antzuan.

– Horrela ezin dugu segitu –esan du neskak.

Mutila muxu ematera hurbildu zaio. Neskak beste aldera jiratu du aurpegia. Sarritan errepikatua dute eszena hau azken aldian, eta ez bakarrik Edurne izeneko horren erruz.

– Zer pentsatzen ari zara? –galdetu dio mutilak.

Komunera joan da erantzun gabe.

Biharamunean, etorriberria Abegi SAko bulegoetara sartu den unean bertan hasi da ahal bezainbeste lankiderekin hitz egiten, Edurnek lapurtu zion txosten hari buruz. Lankideek ez dakite zer esan. Gutxi batzuek beste lankide batzuekin hitz egin dezan aholkatu diote, baina haiekin mintzatu ondoren, beste batzuengana bidali

dute. Eta azkenean, bekainak altxatuko dizkion norbait egongo da bide guztien amaieran, zer esan ez dakiela adieraziko dion norbait, asko jota eskua sorbaldan pausatu eta «animo» esango diona, «animo, neska, gauzak gaizki daudeeta».

Berarekiko konfiantza eza, hasiberriaren gaitza dela pentsatu du neskak.

Bakar bat sastrakarik gabe mintzatu zaio, ordea. Beste sail bateko neska gazte bat da:

– Edurneren aurka oraintxe ez duzu zer eginik. Iñaki Tolosa zuzendariordearen maitalea da. Bere emazteak izan ezik, hemen Abegi SAn mundu guztiak daki hori.

Etorriberriak bulegoan dagoen jendeari begiratu dio. Denak begiak ordenadoreko pantailari itsatsita lanean ari direla dirudi.

– Ni Leire naiz. Eta zu?

– Ni... neska etorriberria. Lanean daramatzadan hamar urte hauetan hainbeste enpresetan aritu naiz hasiberri gisa, nire izena ahaztu ere egin zaidala.

Irribarre egin dute biek.

– Horrelako baldintzetan zaila da lanean lagunak egitea, ezta? –esan dio Leirek.

– Ba, bai. Harritu nau zu nitaz arduratzeak. Normalean ikusezina naiz besteentzat.

– Orain arte inork ezer kontatu ez dizulako ez duzu pentsatu behar hemen denok zakur hutsak garenik. Kontua da jendea izututa bizi dela. Inoiz ez dakizu nondik joko duen albokoak. Eta gutxiago hasiberria bada. Uste dut denok daukagula Edurne gogoan. Garai berean hasi ginen enpresa honetan, lanpostu bertsuan. Neska jatorra zirudien. Begira orain. Merituak egiten ari da. Horrexegatik da talde bateko burua. Behin-betiko kontratua dauka eta diru asko irabazten du. Ni, aldiz, meriturik egin gabe, hasieran bezalaxe nago. Tira, egia esan, hobe horrela. Asko aldatu beharko nintzateke Edurneren bidea jarraitzeko, eta ni ez naiz halakoa.

– Oihaneko legea, beraz.

– Batzuk ez gara horretan erortzen. Badakit beste enpresa askotan baino gehiago kostatzen dela lan baldintzak guztiontzat hobetzea. Eta badakit, gainera, sindikatuek sekulako istiluak dituztela beren artean. Baina tarteka lortu izan

dira gauza txiki batzuk. Egia esan, lorpen horiek nori egiten dieten mesede ikusita, esan dezakegu denok berdinak garela baina, tira, batzuk besteak baino berdinagoak. Eta, hala ere, batzuk ez gara...

– Oihaneko legea.

– Tematia zara gero. Hemen zuria eta beltza baino askoz gehiago dago. Hobe duzu beste kolore batzuk nabaritzen hastea, bestela oso bakarrik sentituko zara.

Zuzendaritzatik presazko lan bat agindu diote Edurneri. Honek, norabait joan beharra duelako aitzakiaz, neska etorriberriari agindu dio.

– Nora zoaz, ba, hain goiz? –ausartu da neska.

– Zu ez zara nor niri hori galdetzeko. Ez al zara oraindik konturatu?

Bakarrik gelditu denean, etorriberria Edurneren ordenadore aurrean eseri eta dokumentu batzuk ezabatu dizkio.

Hurrengo egunean Edurnek harriduraz ikusi du, etorriberriak ez duela agindutako txostenean

esaldi pare bat besterik idatzi. Goiz horretatik aurrera, agintzen dioten lana bukatu gabe uzten hasi da etorriberria. Interneteko zokoak bisitatzeko beta pixka bat badu orain.

Taldeko gainerakoek lehen baino estuago egin behar izan dute lan, gehienbat Edurnek, presazko lanei erantzuteko ezinbestekoa izan baita etorriberriak egiten ez duen lana bere kabuz orekatzea.

Denbora pasa ahala Edurnek aldatu egin du etorriberriarekiko estrategia. Haren lanaz baliatzea nekezagoa bihurtzen ari dela ohartuta, Edurnek gero eta lan gutxiago agintzen dio eta, azkenerako, etorriberriak egun osoak emango ditu bulegoan zer egin ezin asmaturik. Lankideei laguntza eskainiko die, baina gehienetan ez diote lanik utziko. Inoiz bururatuko ez litzaiokeen egoera itogarria bihurtuko da hau: mahai gainean txosten zaharkituak eta ordenadorean ezertarako balio ez duten dokumentuak besterik ez ditu edukiko. Uste baino bizkorrago, ez du jakingo bulegoko orduetan zer egin. Aurki bukatuko zaion kontratua amaitu arte horrela egotera zigortu du Edurnek.

Pasaiako portuko enpresa batean lana eskaini diote neskari.

– Orain putetxe hori utzi ahal izango duzu –esan dio mutil-lagunak.

– Ez, oraindik ez.

Kafearen orduan, Leire inoiz baino lehenago etorri zaio etorriberriari. Paperik gabeko bere mahai aurrean eserita aurkitu du.

– Entzun al duzu zurrumurrua? Edurneri Martuteneko enpresa horren egitasmo-txosten osoa hartu eta zuzendaritzari zure izenean aurkeztu diozula esaten ari dira.

– Gaizki irudituko litzaizuke?

– Erotu egin zara ala zer?

– Ni ez. Eta zu? Ez zaitut inoiz ikusi Edurneri honelako ezer esaten.

– Ezberdina da.

– Hori badakit, Leire. Gakoa da ea zertan den ezberdina.

– Ezin dut sinetsi! Zuk ikusiko duzu zertan ari zaren.

– Lasai, ez duzu nitaz berriro arduratu beharrik izango.

– Zuk nahi duzun bezala. Baina ezin dut sinetsi. Zeu izan zinen galdetu zenidana zergatik den jendea hain mesfidatia.

– Noiz arte? –galdetu dio mutil-lagunak.

– Atzo uztea pentsatua nuen, baina uste baino luzeago joko du.

– Zergatik?

– Dagoeneko ez daukat zer galdu.

– Ondo pentsatu.

Bulegoko lanak goizero ezer berezirik gertatuko ez balitz bezala abiatzen dira. Etorriberriak bere bazterretik begiratzen die lankideei. Behatu eta hausnartu besterik ezin dezake egin. Egunero bulegora iritsi eta ezerezari begira egoten da. Lanik ez egitera kondenatua sentitzen da bulego baten erdian. Badaki saileko kideek mes-

pretxuz begiratzen diotela, orain egonean dagoelako beti.

Edurnek ez dio sekula berriro lanik aginduko, eta etorriberria ez da beretzat bulegoko lanak asmatzeko gauza. Beste zerbaitekin denbora pasatzeko gogorik ere ez dauka.

Baina, eguerdi batean, bulegoa jendez hustutakoan, Iñaki Tolosa zuzendariordearen bulegora joan da etorriberria. Atea jo aurretik irribarrea tinkatu du aurpegian.

– Zer nahi duzu? –harrituta galdetu dio zuzendariordeak.

– Hona etortzeko esan didate.

– Nik ez dizut deitu.

– Banoa orduan. Nolanahi dela, lagundu diezazuket zerbaitetan?

Etorriberria zuzendaritzarentzat lan txiki batzuk egiten hasi da.

Leirerekin ez du ia hitzik egiten. Ezta ordura arte inguruan izan dituen gainerakoekin ere.

Inoiz hitz egin ez dion lankideren bat edo beste hurbiltzen hasi zaio, Abegi SAn sartu zenean atsegina iruditu ez zitzaion jendea.

Etxean, mutil-lagunarekin eztabaidak besterik ez dauzka.

– Ez dut ulertzen zergatik jarraitzen duzun hor.

– Ezin duzu gertatzen ari zaidan ezer ulertu.

Gero eta asteburu gehiagotan egoten dira elkarrengandik aparte. Atzeratutako lana daukala esaten dio neskak. Etxetik hurbil Iñaki Tolosa izaten du zain. Zuzendariordeak Zarautzen daukan etxe batera joaten dira bakarrik egotera. Hango paretak zuri-zuriak dira, apalak eta mahaiak batere apaingarririk gabe, armairuen barrualdeak hutsik.

– Inbertsio bezala erosi nuen –azaldu dio Iñaki Tolosak–. Hemen ez da inor bizi. Horregatik dago hain triste.

– Aukera izanez gero, funtsezkoa da ondo inbertitzea –ihardetsi dio neskak–. Oraingoz berdin du bertan inor ez bizitzea.

Getarian lanbroa ari duela dirudi.

– Getarian euria ari du –esan dio neskak.

– Kalefakzioa piztuko dut.

– Ekarri Coca-Cola bat bide batez.

Astelehen goiza. Etorriberria bulegoetako komuneko ispiluaren aurrean dago, begizuloak nola disimulatu asmatu ezinik. Edurne zaldi pausoz sartu da eta parez pare jarri zaio.

– Utziozu nire aurrean etorriberri inozoaren papera egiteari. Nirekin behintzat goia jo duzu.

– Utziko didazu irteten? Lan asko daukat.

– Zer lan mota? –oihu egin dio Edurnek–. Niri buruzko zurrumurruak zabaltzea? Nondik atera duzu Iñakiren maitalea naizela?

– Orain iritsi al zaizu esamesa? Esango nuke jende guztiak zekiela, zuk eta Tolosa jaunaren emazteak salbu. Uste dut esamesa zaharkitu denerako ailegatu zaizula.

– Zuk, hasiberri xalo horrek, sinetsi egin zenuen, ezta?

– Dagoeneko ez dakit zertan sinesten dudan.

– Enpresa honetan emakume batek beste baliabiderik ez duela uste duzu, ezta?

– Ez, lasai, Edurne. Nire saileko buru zaitudanez, konturatu naiz dohain handiak dauzkazula. Niri dagokidanez behintzat, zuk ere goia jo duzu. Inoiz ez zidaten nire lana hainbeste oztopatu, eta lapurtu.

– Ba zuk gainditu nauzu.

– Hori esanda lasaiago geratu zara?

– Eta zu?

– Nik dagoeneko ez dakit zertan sinetsi, eta egoera honetan lasai gelditzea... hori pentsaezina da.

Etorriberriak behin-betiko kontratua sinatu du. Ahal izan duen bezain laster joan da etxera. Gautu du eta mutila ohean dago. Albistea jakinarazi dio eta, aspaldiko partez, sexua itzuli da. Ez dute maitaleek bezala egin, kirolariek bezala baizik.

Bakoitza ohearen bere aldean sabaiari begira geratu denean, mutilari hurbildu zaio:

– Emaidazu muxu bat.

Mutila ohetik altxa eta dutxan sartu da.

Gero telebista piztu du egongelan. Bera jaio baino lehenagoko futbol partida bat ematen ari dira, Mundu Kopako final bat. Roberto Boninsegnak berdinketaren gola sartu orduko loak hartu du sofan.

Iñaki Tolosa zuzendariordeak etorriberriari deitu dio.

– Non sartu zara azken egunotan?

– Entzun, Iñaki. Uste dut orain hobe dela gauzak bere horretan uztea. Daukagunarekin gustura egon gaitezkeela iruditzen zait.

Algara bat irten da Tolosa jaunaren ahozulotik, eta kopeta belztu zaio segituan.

– Ez al zara jabetu? Kontua ez da zer egiten duzun, baizik eta zein posiziotik egiten duzun. Ni zuri laguntzeko prest nago, baina zuk ere jarri behar duzu zerbait zeure aldetik. Ulertzen? Afaltzeko geldituko gara eta lasaitasunez argituko dugu kontua. Fagollaga jatetxean egin dut erreserba. Konforme?

Neskak ezezkoa egin du buruaz. Aulkitik altxa eta aterantz abiatu da.

– Nora zoaz? Burua galdu al duzu?

Ezezko keinua egin du berriro.

Zuzendariordea jainkoaz akordatu da, ondoren neskaren amaz, eta gero aitaz.

– Bulegotik horrela irteten bazara, gaizki bukatuko dugu.

Neskak bizkarra eman dio, berriro aterantz abiatzeko.

– Zureak egin du. Hartu zure gauzak eta alde enpresa honetatik.

Neska lurrera begira gelditu da.

– Zure emazteari eta Edurneri –esan du burumakur– ez zaie gure harremanaren berri izatea komeni. Eta guri ere ez. Esango nuke, denoi komeni zaigula diskrezio pixka bat eta gauzek bere horretan jarraitzea.

Iñaki Tolosa zuzendariordeak ez du etorriberriaren aurka egin. Tolosa jaunaren maitale postuan etorriberriak Edurne ordezkatu duela zabaldu denez, neskak immunitatea lortu du lankideen aurrean, Edurneren kaltetan.

Baina etorriberriari gero eta lan gutxiago iristen zaio zuzendaritzatik. Eta halako batean, eten egin dira lan guztiak. Etorriberriak egun osoak ematen ditu zereginik gabe aulkian eserita, sudoku moduko zirriborroak egiten.

Tolosa jaunaren maitale izateari utzi diola esaten hasi direnean, enpresa osoan hedatu dira bere lepotik egindako txantxak. Zurrumurruen harira, etorriberria enpresatik kaleratzeko abagunea ikusi du Tolosa jaunak. Bere ekimenez egina dela agerian utzi gabe iradoki dio zuzendariari, Edurneren saileko arazoa lehenbailehen konpondu beharra dagoela.

Eta azkenean, zuzendariaren aginduz, giza baliabideen saileko bat arduratu da etorriberriari presioa egiteaz.

– Ez al duzu ikusten muga guztiak gainditu dituzula? Abegi SA paradisu bat ez dela badakigun arren, inor ez da iritsi beste norbaiti txosten bat ezabatzera, eta gero, gainera, beste txosten bat lapurtzera. Zuk esaten duzu zuri ere egin dizutela, baina, zer nahi duzu esatea, kosta egiten zaigu zure bertsioa sinestea.

– Amaitu duzu?

– Bai.

Neskak berehala utzi du enpresa. Badaki epaitegietara joz gero, egoera oraindik gehiago oker daitekeela. Baina Abegi SAtik joan aurretik, bulegoan eman dituen ordu horiek guztiak gutun bat eta txosten bat idazteko baliatu ditu.

Gutunean, Edurneri, Iñaki Tolosari eta honen emazteari zehatz-mehatz kontatu die Edurneren ibilbideari buruz dakien guztia, esamesak barne; eta horrekin batera, Iñaki Tolosarekin izan duen harremanaren xehetasunen kronika ere egin die.

Txostenean, Abegi SAn egon den hilabeteetan enplegatuei buruz entzun dituen zurrumurruak bildu ditu, eta lankide guztiei bidali.

Pasaiako portuko enpresa batek egina zion lan eskaintza onartu du.

Lehen egunean Josu Igara izeneko gizon atsegin batek egin dio ongietorria. Azalpen arin batzuen ondoren, bere mahaia izango dena erakutsi dio.

– Ikasiko duzu poliki-poliki.

Azken hamaika urteetan egin duen lanaren oso antzekoa dela iruditu zaio etorriberriari, baina ez du ezer esan.

Igara jaunak arreta eskatu die bulegariei, etorriberriari agurra egin diezaioten. Hala ere, langile batzuek begiak ordenadore pantailatik altxa gabe jarraitu dute.

– Hasiberria aurkeztuko dizuet. Zer izen duzula esan didazu?

Kanpotik datoz, barrutik dator

Iritsi naizenean zarataka ari da telefonoa. Neskalaguna izango dela pentsatu dut. Arratsaldean dugu erditze ariketak egiteko saioa eta, aurreko aldian agertu ez nintzenez, goizean goizetik oroitarazi nahiko didala imajinatu dut. Oraindik ez du onartu aurrekoan ez zitzaidala ahaztu, lanez lepo nenbilelako huts egin niola.

Baina bulegoan ongietorria egin didan deia bezero batena da. Eraman behar dizkiogun piezak laster iristen ez badira, ekoizpena eten egin beharko duela esan dit ia oihuka. Aurki izango dituela erantzun diot. Ez dakit itsasontzia porturatu denetz, baina badakit gaur goizean iristekoa dela, eta, beraz, egiaren azken zatia bakarrik jakinarazi diot. Agurtu gabe deia eten duenean, lortu du bere umore txarra nik ere barneratzea. Hala eta guztiz, nire baitarako bakarrik gorde dut. Bulego hau ez da nor bere arazoak erakusteko leku aproposena.

Anjel enplegatu baten paperak ikuskatzen ari da. Hura ez da sekula aldatuko. Lan elkarrizketa egin zidan egunean, bere izena esan aurretik bulegoko langileen arduraduna zela jakinarazi zidan. Egun hura oroitzeak barregura ematen dit orain. Anjelek ez daki lankide guztiek nagusi txikia deitzen diotela.

– Ai, ene –esan du nagusi txikiak enplegatuaren paperak mahai gainean uztean.

Berari begira nagoela jabetu eta nigana etorri da. Mahai gaineko paperak txukuntzen ari naiz oraindik, egun osoan bete beharreko zereginak nondik hasi erabaki ezinik. Nagusi txikiari umoreko kasu egin asmoz, kemena biltzen saiatu naiz.

– Egun on, Xabier –esan dit serio; prentsarako argazkietan bakarrik erakusten du bere irribarre bitxi hori.

– Egun on, Anjel. Zer moduz joan da astebURUA?

– Astelehena, Xabier, astelehena. Bulegoan bueltan gaude eta, badakizu, orain asteburua...

Nagusi txikia gizajo hutsa da. Lanarekin obsesionatua dagoenez, goizetik gauera bulegoan

gatibatua egotera behartzen du bere burua, eta beste guztiok bera bezalakoak izatea nahi duela dirudi. Lan elkarrizketan bertan argitu zidan enpresa hartan segitu ahal izateko baldintza: bezeroei galdetuko omen die niri buruz, kontratua berritzea merezi dudan ala ez, eta gutxienez bi herenek erantzun beharko diote baietz. Ez dakit hori egiteko gai izango denetz, baina ezerk ez ninduke harrituko.

– Ondo al doa zure lana? –galdetu dit, aisialdiari buruzko galderak etenda.

– Moldatzen naiz. Gaur goizean iritsiko den itsasontziari esker aseko ditugu bezeroak. Kexatu dira pittin bat, baina horretarako gaude gu hemen, ezta?

– Niregatik balitz, denok Kariben oporretan egongo ginateke. Baina, badakizu, horko horiek agintzen dute –esan du goiko solairua seinalatuz, bertan baitago Luis Garcia zuzendariaren bulegoa, eta alboan Josu Igara kudeatzaile nagusiarena.

Irribarre egin diot nagusi txikiari. Berak berdin erantzun dit.

Denok eragiten diogun mesfidantza ezkutatzearren, zurikeriatan ibiltzen da beti, eta jarrera bera espero du gugandik; baina denok ezagutzen dugu nagusi txikiaren baretasunak ezkutatzen duen zakur amorratua, txinparta txiki bat nahikoa baitu hortzak erakusteko.

Lankide bat korrika txikian hurbildu zaigu, eta eten egin behar izan dugu nagusi txikiaren eta bion arteko zurikerien trukea. Nagusi txikiak bere bulegora eraman du lankidea. Minutu gutxiren buruan orroka ari zaigu bulegoaren erdian.

– Eskaerek helmugetara garaiz iritsi behar dute. Kosta ahala kosta. Mezua ulerterraza da, ezta?

Deiak egiteari ekin diot, gogo gabe baina urduri. Hilabete gutxi daramatzat hemen eta ez dut lanpostua galdu nahi. Nahiko justu gabiltza hileroko gastu arruntak eta etxeko hipoteka ordaintzeko, eta neskalaguna ere ni bezala dabil lan batetik bestera.

Beste bezero batek deitu du nitaz galdezka. Zakartasun izpirik gabe mehatxatu nau: eskatutakoa berehala eramaten ez badiogu, ez du hornitzailea aldatzeko batere arazorik izango.

Orduantxe sartu da Rafa, azkar eta norabide gabe oihuka:

– Ez al duzue entzun? Duela ordu bete aurkitu dute itsasontziko sotoan, zaku bat gehiago balitz bezala. Inork ez du ezer egin. Inork ez du ezer esan. Zer ari da gertatzen?

– Lasai, Rafa –sartu da nagusi txikia tartean–. Jakin dezazuen: etorkin bat hilik agertu da orain sartu den itsasontziko sotoan, baina lasai. Berehala etorriko dira poliziak, epailea eta kazetariak. Beraz, haiek zuen lana oztopatzen hasi aurretik, hobe duzue orain ahal bezain beste aurreratzea. Eutsi goiari.

Nagusi txikia urrundu denean, alboan dituen lankideekin hitz egiten hasi da Rafa. Bulegoko guztiekin egon ondoren, nire alboan dauden bi lankiderengana etorri da eta, bide batez, niri ere hitz egin dit. Ez da gutxi, ikusezina bainaiz gehienetan.

– Zer egin dezakegu? Niri oraingoz gauza bakarra bururatu zait: orri batzuetan zerbait idatzi eta orri horiek eskuan hartuta kazetarien aurrean jar gaitezke.

– Hori ezin dugu egin, Rafa –esan dio batek–. Itxura oso txarra emango genuke. Prentsan ikusten bagaituzte, zer esango dute itsasontziaren enpresakoek. Eta zer hornitzen ditugun enpresek. Ez dut argi ikusten, Rafa. Niregatik balitz, egingo nuke, baina kontua uste baino zailagoa da.

– Badakit ez dela erraza, baina ezingo dugu, ba, kontua bere horretan utzi, ezta? Zuk zer diozu, Pablo?

– Orain ezin dut, Rafa. Badauzkat arazoak bestela ere eta, gainera, niri urrun gelditzen zait kontu hori. Bakoitza molda dadila ahal duen bezala. Eta ez da hori bakarrik, nik orain egin dezakedan ezerk ez dio sotoan dagoen horri bizia bueltatuko. Alferrik ari zara zalapartan, Rafa.

– Harrituta utzi nauzue –Rafa lurrera begira gelditu da–. Ez dakit zer pentsatu.

– Nik egingo nuke –errepikatu dio hasieran hitz egin dionak–, baina ezinezkoa da. Ez da ez leku ez une aproposa. Hori ulertu beharko zenuke.

– Uste dut azken aldian ez dudala ezer ulertzen. Tira, igual nire arazoa da.

Bizkarra eman digu eta bere mahaian esertzera joan da. Nire iritziari zer garrantzi eman dioten ikusita, kontua ez dagokidala niri iruditu zait. Deiak egiten jarraitu dut, inguruan sortzen ari den zurrumurruarekiko entzungor. Nire estuasunak ditut gogoan. Ez dakit nola moldatuko garen hipoteka ordaintzeko; umea izan eta hau unibertsitatera iristen denerako, agian hipotekaren erdia baino gehiago izango dugu ordaindua.

Zenbait pentsamendu uxatu nahian, paper artean moldatzeko ahalegin antzuetan ari naizela, idazkaria etorri zait mahai ondora, nagusi txikiak nirekin hitz egin nahi duela esanez. Gogo txarrez joan naiz. Bere bulegora sartu eta telefonoz sutsu hitz egiten aurkitu dut. Deia bukatu duenean, niri zuzenean begiratu eta zertarako deitu nauen gogoratzen saiatu da. Ni esertzera gonbidatu gabe hasi da hizketan.

– Entzun, Xabier. Zure ardurapean dagoen bezero batek nahiko urduri deitu dit. Ez omen dituzte azken egunetan espero zituzten piezak jaso.

– Porturatu den itsasontzian dago dena.

– Badakit. Horrexegatik deitu dizut. Zerbait egin behar dugu lehenbailehen. Hara joan, hitz egin arduradunarekin eta molda zaitez goizean bertan guzti-guztia deskargatzeko.

Saiatuko naizela esatear egon naizen arren, badakit ez dela konforme geldituko eta, hortaz, buruarekin baiezkoa besterik ez diot egin. Inoiz ez bezain urduri dago.

– Hauek lana besterik ez digute ematen –esan dit, ezagutzen ez dudan tonu batean–. Ezin da beti nahi duzuna egin. Pentsa, denek sotoko horrek bezala egingo balute, merkantziak beharrean, hildakoak garraiatu beharko genituzke.

Baiezkoa egin diot buruaz. Ez nator berarekin bat, jakina, baina orain ez dut sotoko morroi hura defendatzen hasteko aukerarik. Denboraz ere larri nabil gainera. Nagusi txikia hitz egiten ari den bitartean, sakelako telefonoa dardaraka ari zait poltsikoan eta badakit bezeroren baten presazko deia izango dela.

Itsasontzira igotzeko zubitxoaren aurrean polizia bat dago eta hari eman diot merkantzien arazoen berri. Arduradunari galdetzeko esan dit.

Itsasontziaren sotoan omen dago. Nahi ez dudan zerbait gertatzear dagoela konturatu naiz. Eskaileretan behera joan ahala, motelago eman ditut pausoak. Soto hau itogarria da benetan. Hasieran urrun entzun ditudan ahotsei jarraituz, anbulantzietako kidez eta poliziez beteta dagoen leku batera iritsi naiz. Inork ez nau sumatu eta haiengana hurbildu behar izan dut, arduraduna haietakoren bat ote den galdetzera. Bidean aurkitu dudan lehenengo poliziari kontatu diot arazoa, baina harago dagoen beste batengana joateko esan dit. Burua jiratu eta berehala ikusi dut, bazter batean etzanda, maindire batez estali gabe oraindik. Lo dirudi. Sotoko argien azpian, bere azal beltzak distira berezia du. Barruak mugitu dizkit. Bulegoan aipatu diguten kontu hura orain niretzat errealitate bihurtu dela sentitu dut. Ez naiz beste alde batera so egiteko gai. Begirada distira beltz horretan iltzatua dut.

Polizia bat jarri zait tartean, ea zer nahi dudan. Merkantzien arazoa azaltzen ahalegindu naiz, baina ez behar bezala. Sabelaldea nahastua dudala jabetu naiz, zorabiatzen ari naizela, zurbiltzen ziur aski, eta oharkabean botaka hasi

naiz. Galtzak eta botak zikindu dizkiot poliziari. Berriro egin dut txahalka, bazter batera. Beste polizia batek besotik heldu eta kanpora eraman nau. Tripak bota ditut berriro.

– Zer duzu? –galdetu dit poliziak.

– Ez dakit nola esan –besterik ezin dut ahoskatu.

Komunera joateko aholkatu dit. Ez dut bulegokoetara joan nahi, bidean topatu beharko ditudan pertsonen galderei erantzuteko gogorik ez dudalako. Alboko enpresak kanpo aldean duen komunera sartu naiz. Kisketaz itxi eta negarrez hasi naiz, ezin eutsirik. Komuneko zuloaren gainean eseri eta bertan eman dut gutxienez ordu laurden bat. Nire onera bueltatu naizela iruditu zaidanean, kisketa ireki eta berriro ere bulegora joateko asmoarekin irten naiz. Komunetako ispiluan neure burua ikusitakoan, behin eta berriro busti dut aurpegia, malkoen arrastoak desagerrarazi asmoz.

Kalera irten naizenean, nagusi txikia daukat zain. Lankideren batek pasako zion abisua. Demandan hasiko zaidala dirudi. Pauso batzuk niganantz eman eta paretari begira hitz egin dit.

– Niri ere pena ematen didate, Xabier. Nori ez? Ezer gutxi egin dezakegu ordea.

Baiezkoa egin diot buruaz. Dagoeneko ohitura hau ondo baino hobeto ikasia dut. Bere eskua sorbaldan jarri dit, elkartasun keinua dirudien zerbait eginez. Une bakoitzean zer egin ondo dakiela uste du gizon honek. Harrigarria bezain penagarria da.

– Tira, segi lanera. Hobe dugu gure kontuetan buru-belarri saiatzea. Animo.

Bere hitz zurietatik ihesi, bulegora abiatu naiz. Nire mahaiaren parera iritsi eta aulkian eseri naiz, nekatuta. Lanean segitzearen itxurak egin ditut. Gero, kaxoian giltzaz gordeta dudan argazki kamera digitala atera dut. Gorpuaren argazkiak egin eta Interneten zabaltzea erabaki dut. Badakit gehienentzat haragi pixka bat gehiago ikustea bezala izango dela, baina nire betebeharra dela sentitu dut.

Kanpoko aterantz noala, Abegi SAtik etorri berria den neska bat ikusi dut korridorean. Gurutzatu garenean, distantzia ondo neurtu ez dugulako edo, bere eskuak nirea ukitu du.

– Zer esku hotzak dituzun, Xabier –esan dit neskak, kezkatuta.

Nik baietz erantzun diot, besterik gabe.

Emakume bizia eta arduratsua dela dirudi.

Eskuak poltsikoetan sartu eta itsasontzirantz abiatu naiz berriro. Bulegotik irtetean, uztaileko goiz bati dagokion giro epela sentitu dut. Pasaiako badia osoan ez da hodeirik ageri. Iritsi dira aurreneko kazetariak itsasontziaren ingurura. Gora igotzeko zubitxoa zaintzen ari den polizia lehengo bera da.

– Paperak ahaztu ditut barruan –esan diot.

Arazorik gabe utzi dit sartzen.

Sotorantz noala, argazki kamera digitala zorroan ezkutatuta, eskuak dardaraka sentitzen ditut poltsikoan, azala hotz. Eta ergela naizela pentsatu dut. Hainbeste motibo ditut horretarako.

Jarri eskela bat zure bizitzan

MAITE

Azkar, azkar, azkar. Ez daukat beste pentsamendurik goizeko ordu honetan. Badakit berandu iritsiko naizela berriro. Negu gorriaren erruz. Kanpoko hotzak bultzatzen nau ohean behar baino denbora gehiago egotera. Gosaria irentsi eta banoa arineketan.

Atea irekitzen ari naizela jo du telefonoak. Edurne da, nire ahizpa. Presaka nabilela abisatu diot.

– Zer?, Gabriela hil dela? Beraz... Ez, ez dut astirik. Nahi baduzu, iluntzean joango naiz... Urte batzuk bazituen behintzat... Denok lasaiago biziko gara orain, ez zaizu iruditzen?... Tira, presatuta nabil, joan beharra daukat. Gero arte.

Azkar, azkar, azkar. Buruan ez daukat besterik. Ziztu bizian irten naiz lantokirantz.

BELEN

Banekien aspalditik, baina ez nuen uste aitaren eta alabaren arteko ezinikusia hainbesterainokoa zenik. Aita hil zaio Maiteri. Hil! Eta presa duela esan ez dio ba! Aita ere ez dio deitzen. «Gabriel hil dela?» besterik ez dio esan, goibeldu ere egin gabe. Txotxola. Niri alabak hori egingo balit, heriotzatik esnatu eta neure eskuekin itoko nuke. Denak lasaiago biziko direla orain... Hori da hori belea! Aita noiz hilko itxaroten zegoen!

Gurasoek utzitako etxebizitza beretzat jabetzan hartu eta lasaiago biziko al da? Eta ama etxetik botako ote dute?

Anari deituko diot berehala. Orain arte kontatu diodan guztiarekin zalantzak bazituen, gaur kontatuko diodanarekin behintzat argi ikusiko du zeinen sorgina den Maite, nire bizilagun maitea, sorgin hutsa!

Gabriel ez zen pertsona zoragarria, baina familia horretan inork ez dauka gizatasun apurrik ere.

TERESA

– Entzun duzu Gabriel Etxezarreta hil dela? –galdetu diot badaezpada ere.

– Maria Etxeberriaren senarra zen hori, ezta? Ba, ez nekien ezer, baina ez nau batere harritzen, egia esan. Horretarako prestatzen ari zen itxura zuen. Oso aldatua zebilen azken aldian.

– Ikusi al zenituen aurreko bi edo hiru asteetan emaztea eta biak besotik helduta poliki-poliki paseatzen?

– Bai, ikusi nituen. Igual oso gaixo egongo zen.

– Seguru.

– Gainera, Gabrielek maitale hori izan eta gero... Mariak ez zukeen bere ondoan jarraituko motibo garrantzitsurik gabe.

– Arrazoia duzu. Mariak betidanik izan dituen aire horiekin... ez dakit zein balitz bezala. Baina maitalearena zabaldu zenez geroztik, uste dut ez dela lehengoa. Eta Gabriel gaixo egon izan ez balitz... hala ere... asko aldatu da Maria.

– Egia da. Biak elkarrekin ikusten nituen bakoitzean tristatu egiten nintzen. Hain motel zebiltzan. Denbora guztian ingurura begira; zeru-

rantz ez bazen, itsasorantz, eta bestela etxeren bati. Biak ala biak burua galtzen ari zirela ematen zuen.

– Nola bukatzen duten batzuek, ez zaizu iruditzen?

– Bai. Pena pixka bat ematen du.

JON

– Egia al da Gabriel hil dela? –galdetuz sartu da lankide bat Iñaki eta bion bulegora.

– Ez dakit –erantzun diot–, baina hala bada, ez dio bere erretiroak asko iraun.

– Zer nahi duzu esatea? Ez da oso normala hirurogei urte bete berritan lana uztea, batez ere zuzendaritzatik ezer eskaintzen ez badizute. Orain bankuetan egiten ari direna gauza bat da, ondo dago, baina Gabrielena... hark bere kasa hartu zuen erretiroa.

– Arrazoia duzu. Ez zitzaion ia sosik geldituko.

– Hain diru gutxirekin ezin da bizi. Gaur egun ez.

– Oraintxe arte ez zait bururatu, baina hil dela jakin dudanetik, erretiroa hartzeko bere

erabaki bitxi horrek zer pentsatua eman dit. Ezer esan ez zigun arren, ondo jakingo zuen zer zetorkion. Bestela, inor ez zatekeen ausartuko erretiroa baldintza horietan hartzera.

Kopetilun eta isilik gelditu gara hirurok.

– Nola egingo dugu eskelarena? Bilboko bulegokoei ere esango diegu ea parte hartu nahi duten, edo ez diegu ezer esango?

– E-mail batez abisatzea nahikoa da. Nik ez diet deituko.

– Ezta nik ere.

JEXUX

Zer ari dira esaten? Gabriel hil dela? Nola? Negar egiteko gogoari eutsi diot, halako egoera batean elkartean malkotan agertzea ez baita itxurosoa. Sukaldearen inguruan bildutako gizon taldera hurbildu naiz. Zazpi ordu barru egiteko asmoa genuen afarirako lehen prestaketak egiten ari dira. Eta haiek ere Gabriel dute ahotan.

– Aspaldi zegoen gaixo. Gero eta makalago. Azken aldian ez zen elkartera etortzen ia. Futbol

partidak eta tarteka pilota partidaren bat ikustera bakarrik jaisten zen.

– Hori ere uzten hasten zarenean...

– Pentsa garai batean nola ibiltzen zen Gabriel hemen saltsan.

– Horrelako pertsona batek gure elkarteko lagunartea bazterrera utzi duenerako...

Ez nekien halakorik, ni ere ez bainaiz sarritan etortzen. Nolanahi dela, nik inoiz baino biziago ikusi izan dut Gabriel. Aspaldiko partez mendira joatea proposatu izan dit. Betiko lagun batzuk ere bildu izan gara. Elkartekoa ez den jendea ere bai. Aspaldi bisitatu gabekoak ikustera ere joan gara. Nik pozik ikusten nuen. Agian azken uneko ahaleginak besterik ez ziren izango? Hil aurretik izan ohi den indarraldi horietako bat baino ez.

– Itxarongo dugu oraindik, baina bere omenez afariren bat antolatu beharko dugu, ezta? Urte asko eman ditu hemen sartuta.

– Eta beste zerbait egingo bagenu? –esan dut nik.

– Zer baina? –haserretu da.

– Zerbait berezia –erantzun dut pixka bat lotsatuta.

– Hori besterik ez zuen esaten Gabrielek azken asteetan. Beste zerbait... Zerbait berezia... Eta gero desagertu egin zen gure artetik. Eta betiko, ikusten denez. Ez zara zu ere gaixotzen ariko, ezta? Entzun, Jexux: ez burujanetan ibili, segi korronteari. Egin beharrekoa egingo dugu eta gertatu beharrekoa gertatuko da. Hobe da horrela.

Hori esan eta bere sabelalde hanpatua laztandu du bi eskuez.

JOKIN

Oporretan nagoen bitartean institutuari begiratzea plazer bat da. Albotik pasa gara eta aurrera segitu dugu, trufaka.

Semaforoa berdean noiz jarriko zain gauden bitartean, zebra-bidearen beste aldetik atso batek agurtu eta itsu-itsuan etorri da nigana. Ez da konturatu kotxe bat geldiarazi duela. Eskua nire beso gainean jarri eta hizketan hasi zait:

– Sentitzen dut, Jokin. Pena da, baina gauza hauek ezustean etortzen dira.

Amonaren ezagun horietako bat dela iruditu zait. Nahastua zebilela esatear egon naiz, baina esaldi gogorregia da agian, eta zer esan asmatu ezinik nabilela, atsoa ez da isildu:

– Gazte hil da zuen aitona Gabriel.

– Zer esaten ari zara!

– Bai, Jokin. Gaur egun hirurogei urte oso gaztea da hiltzeko.

Buelta erdia hartu dut eta korrika abiatu naiz lagunak dauden bazterrera. Harrituta kontatu diet atsoak esan didana.

– Ez dela hil, atsoa! –oihu egin dio Buferrek–. Zu, ordea, laster.

Beste guztiok barre egin dugu, eta atsoa ahalik arinen joan da ihesi, pauso txikian. Barrez segitu dugu tarte batez, baina niri kezka ez zait uxatu. Aita bazkaltzeko zain dudalako aitzakiarekin alde egin dut.

Porru-patata prestatzen aurkitu dut aita.

– Ez dakizu zer gertatu zaidan oraintxe. Kalean atso batek aitona Gabriel hil dela esan dit.

– Zergatik esan dizu hori? Zer zen, ero bat?

– Ez dakit. Uste dut amona Mariaren ezagun bat dela.

– Ez zen ezer txarrik gertatuko, ala?

Aitak telefonoa eskuetan hartu eta deitu-ez-deitu egon da tarte batez. Zenbakiei sakatu eta zain gelditu da. Rufik hartu dio, amaren nobioak. Iritsi berria omen da eta ez omen du uste amak etxera joateko asmorik duenik.

Sakelako telefonora deitu dio orduan.

– Maite, non zaude? –esan dio aitak azkarregi.

MAITE

Zer egingo dut? Nahastu egingo zen, seguru. Egia esan, oraintxe piztu dut mobila, Pabloren dei bat daukat, eguerdikoa, baina ez zait beste deirik sartu. Zerbait gertatu izan balitz, deituko zidaten, ezta? Izango al zuten astirik? Beharbada ama gaizki egongo da eta Edurnek ez du niri deitzeko aukerarik izan? Asko esatea da hori, baina nire ahizparekin ez dago sekula jakiterik.

Noiz gertatu den ere ez dakit... baldin eta gertatu bada. Zer egingo dut orain, gurasoen etxera deitu eta ea aita hil den galdetu? Edurne-

ri deituko diot. Kakazaharra, itzalita dauka. Amari deitu beharko diot ba.

– Zer moduz, ama?

– Ondo. Zu ondo?

– Hementxe.

– Zer berri?

– Ezer berezirik ez, uste dut. Zuk?

– Nik dakidala, ez.

Larritasunak goitik behera hartu nau.

– Aitarekin zaude?

– Ez. Goizean mendira joan da eta ez daukat bere berririk.

Beldur kolpe bat sentitu dut sabelaldetik hasi eta gorputz osoan zehar.

– Eseri nonbait, ama. Eserita zaude? Bai? Entzun hau. Donostia osoan omen dabil zurrumurrua... aita hil egin dela.

– Zer esaten ari zara? Ai, ene!

Isilik gelditu da.

– Ama! Ama!

– Egon, Maite. Sakelako telefonora deituko diot niretik. Egon.

Zain gelditu naiz eta isiltasuna ikaragarri luzatu da.

– Ez du hartzen... Egon... Falta zena. Honen mobila eta ezer ez! Logelan utzi du. Egongelako telebista mugikorragoa da telefono hori baino! Non sartuko zen gizon hau!

– Etxean geratu, ama. Horra noa korrika.

Hau hankasartzea! Ez nion deitu behar. Beregana joan eta kito.

– Ni iritsi arte ez ezer egin, ez deitu inori. Edan ur pixka bat. Hamar minutu barru hortxe izango naiz.

GABRIEL

Nekatuta itzuli naiz Aralartik. Ederra da gero, Aralar. Nire sasoia ez da garai batekoa, baina patxadak laguntzen dit orain, gauza bakoitzari behar adina ordu eskainiz. Urrezkoa da denbora.

Emaztea arraro sumatu dut etxean sartu naizenean. Bihar goizean goiz paseo bat ematera joateko proposatu behar nion, azken asteetan bezala, poliki-poliki ibiliz, inguruko gauzei arretaz begira, berriketan, isilik, nahi dugun bezala, baina patxadaz, baina ez naiz ezer proposatzera ausartu, zerbait gertatzen zaiola sumatu dut-eta.

Duela gutxi desagerrarazi nituen estuasunak bueltan sentitzen hasia naiz. Lanak itota ailegatu nintzen egun hartan bezala: Maria ere iritsi berria zen eta deblauki kontatu zidan bere maitalearena. Orduantxe aldatu zen dena.

– Orain dela bost minutu deitu du Maitek –esan dit emazteak, eta ni hemen eta orain kokatzeko ahaleginean ari naiz.

– Maite? –gure alabaren izena ere zalantza bihurtu zait.

– Honantz dator.

– Zer gertatzen da ba?

– Entzun, Gabriel. Zurrumurru bitxi bat zabaldu da Donostia osoan. Hil egin zarela esaten ari dira.

– Ni?

– Bai, bai. Ez dakizu zeinen gaizki pasa dudan. Eskerrak bost minutu ere ez diren pasa Maitek deitu didanetik atetik sartu zaren arte.

Hasperen egin dut. Gero barre, barru-barrutik baina ez ozenegi.

– Horrelako esamesak sortuko zirela jakin izan banu, lehenago ere hartuko nuen erretiroa

–emaztearen erreakzioa neurtu nahi izan dut–. Beste zerbait gertatu zela uste nuen.

Maitek atea jo du. Estu dator.

– Nik esandakoaz ez zara fidatzen oraindik? Ikusten duzu zuen aita goitik behera ondo dagoela!

– Badakizu, ama, ni Santo Tomasen kastakoa naiz: ikusi gabe, ezin sinetsi.

Mahaiaren inguruan eseri gara, goiz afaltzeko asmoz. Txitxarroa, letxuga pixka batekin.

– Hara, hara, hara!

– Zer duzu? –harriturik galdetu dio amak alabari.

– Oraintxe konturatu naiz. Egun osoa korrika... eta ahaztua neukan. Gabriela hil da, Edurneren etxepekoa, eta baten batek aita berarekin nahastuko zuen, izenek antza dutelako. Horrela sortzen dira zurrumurruak.

– Hau marka!

– Itxaron, aita, akaso bihar zure eskela ikusiko duzu-eta. Gutxik daukaten pribilegioa da, ez zaizu iruditzen?

– Bai, bai... baina zein da Gabriela hori?

– Ez duzu gogoratzen? Gure Edurneren bizilagun hori. Edurne bere nagusiaren, Iñaki Tolosa delako horren maitalea zela esaten hasi zirenean, zurrumurrua bizilagun guztiei kontatu zien atso nazkagarri hori.

Maiteren sakelako telefonoa dardaraka eta zarataka hasi da mahai gainean.

– Zer moduz, Edurne? Lehen deika aritu natzaizu... Bilera batean... Ez, ez da ezer. Gaizkiulertu bat, besterik ez. Baten batek zuen etxepeko Gabriela gure aitarekin nahastu du eta hil egin dela zabaldu da... Zer?... Ez da egia izango... Oraintxe kontatuko diet. Hitz egingo dugu lasaiago. Bihar arte.

– Zer esan dizu? –irrikitan galdetu dio emazteak.

– Gabriela orain minutu gutxi ikusi duela bere etxeko eskaileretan bizi-bizirik. Ez dakit nori buruz gaizkiesaka ari omen zen. Bere saltsan, beraz. Zuri buruz igual, aita.

– Auskalo.

– Ez du ematen gaur inork hiltzeko asmorik duenik.

– Ez, gaur ez, antza.

Ez dugu gaiari buruz gehiago hitz egin. Afaltzen bukatu eta segituan joan da alaba, bihar lan asko omen duelako. Atea itxi duenean, Maria eta biok isilik gelditu gara ezkaratzean. Besarkatu egin dut eta muxu eman. Muxu luzea izan nahi zuen, baina barrez hasi naiz.

– Hau da hau fundamentua –esan du.

– Joango al gara ohera goxo-goxo. Pixka bat hoztuta iritsi naiz menditik. Negu gorrian gaude.

– Oso ondo iruditzen zait. Laster urte berria dator eta osasuntsu hasi behar dugu.

Itzulingururik gabe joan gara logelara. Ohean sartu eta maindireen hotzak dardara eragin dit hasieran. Baina berehala berotu ditugu.

Kaxen barruan zer dagoen

Gustura sentitu da egunkariko argazkia ikusita. Enpresa ondo doalako saritu dute. «Urteetako lanak fruituak eman ditu» esan zioten, «zorionak». Irribarrez ageri da argazkian, beste guztien erdian, zilarrezko plaka bat eskuetan. Begiak egunkaritik baztertu gabe joan da etxeko pasillo luzean zehar, alfonbra irandarra seguru zapalduz, altzari garestien albotik, paretan zintzilik eta apaletan egonean dauden gauza baliosei erreparatu gabe, ezta familiaren armarriari ere. Sukaldeko mahai handira eseri da gosaltzeko.

Rosamundak prest dauka dena. Emakume kolonbiarra beti isil-isilik egoten den arren, argazkia ikusi duela esan dio gizonari. Honek, ohi baino ahots goxoagoaz, txikikeriak direla erantzun dio, harrotasuna ezkutatu ezinik. Isiltasun tarte baten ondoren, udazkena sartua dela esan dio Rosamundak, eta gizona harritu eta poztu egin da aldi berean, azkenean Rosamunda konfiantza modu batez hitz egiten hasi zaiolako. Or-

duan sartu da emaztea sukaldera, atzetik semea eta alaba berriketa ozenean dituela. Gizonak bere argazkia datorren orrialdean zabalik mantendu du egunkaria.

– Ene, Josu –esan dio emazteak–, zeinen dotore ageri zaren. Ingurukoen eraginez ote da?

– Ez harritu –erantzun dio senarrak–. Beraiengatik ez balitz...

– Ba, ea zure lagun horiek gu ere kontuan hartzen gaituzten –esan du semeak umoreko–. Eskertuko nieke lanpostu on bat. Trebeziarik ez zaigu falta. Zerbaitegatik gara Josu Igara jaun txit errespetatuaren seme-alaba jatorrak.

– Ezin zarete kexatu, Ander –esan du aitak–, nahi zenuten guztia eman dizuet.

– Den-dena... –esan du alabak zalantzati.

Labanaz edalontzia kolpatu du amak, atentzioa erakarri nahian.

– Orain gosaldu azkar. Bestela, berandu iritsiko zarete.

– Gustura ez bazaudete –jarraitu du aitak zirtolari–, ez da berandu zuen kotxeen giltzak bueltatzeko, eta zain dituzuen etxebizitzen giltzak

bueltatzeko ere ez. Horrela zuen kasa saia zaitezkete...

– Ez dezagun ezerezetik drama bat sortu –eten du semeak–. Guk asko maite zaituztegu. Eta inguratzen gaituzten etxetxoak, trasteak eta tresnak ere bai.

Barre egin dute sukaldean dauden guztiek, Rosamundak izan ezik, ustez ez baitu euskaraz batere ulertzen. Igara jaunak Rosamundari begiratu dio eta berehala joan zaio irribarrea. Bi urte daramatza neskame eta ez dakite ezer berari buruz. Rosamundaren begirada zorrotzak etengabe epaitzen dituela uste du Igara jaunak, eta beldur da Rosamundak uste baino gehiago ez ote dakien euskaraz.

Laurak mahaiaren inguruan eseri direnean amaitu dira solasak, gosea da nagusi. Gero semeak aitari egunkaria hartu dio eta orrialdeak pasa eta pasa hasi da, tarteka albisteren bati buruz aipamen laburrak eginez: euskal politikari buruzko eztabaida etenik gabea, Iraken ia ehun hildako atzo, modelo hori drogatzen harrapatu dutela, Sara Montiel ezkontzera doala berriro.

– Begira, aita –esan du halako batean–, Pasaiako portuan kokainaz betetako kaxa batzuk atzeman dituzte. Gaur ez zaizue txutxumutxurik faltako lanean. Non zegoen itsasontzia, zuen bulegotik gertu?

– Ez dakit. Ez dut ezer entzun. Zer esaten du ba?

– Gauza handirik ez. Guardia Zibilak donostiar bat atxilotu duela eta kontrabando sarearen bila dabiltzala.

Igara jaunak, aulkitik altxa eta eskuak semearen sorbalden gainean jarriz, arretaz irakurri du berri laburra. Leihotik begiratu du ondoren. Urriko egun hodeitsua. Zuhaitzak hostoak galtzen hasiak dira.

– Hau hipokresia hutsa da –serio kexatu da semea–. Denok dakigu zertan ibiltzen den Guardia Zibila. Merkantzia hau ez zen beren kontrolpean egongo eta moztu egin diote bidea. Beste negozio sare batekoak izango ziren hauek.

Igara jauna bere aulkian eseri da atzera eta katiluan gelditzen diren kafe kondarrak edan ditu astiro. Emazteari musu eman eta gainerakoak ohiko hitzen bidez agurtu ditu. Etxearen be-

healdean dagoen Antiguako auzoari begiratu gabe abiatu da lanera. Eguneroko kotxe ilara luze eta motelekin topo egin du Donostiako saihesbidean. Sakelako telefonoa hartu duenean, ez du lantokira deitu berandu iritsiko dela abisatzeko. Beste norabait hots egin du, baina ez dio inork erantzun. Goizero bezala Pasaiako irteeratik joan beharrean, Lapurdiranzko muga zeharkatzera doa. Baina asmo hori baztertu eta autopistaren Oiartzungo irteeratik joan da lantokira. Bidean iseka eta atralaka egin die beste gidariei, gauza batengatik ez bada, besteagatik. Lantokiko aparkalekura iritsi denean, Guardia Zibila ikusi du atarian.

Kontu handiz sartu dute patrolean.

– Ba al dakizu zein atxilotu zuten egun berean? –esan dio parean duen gizonak Igarari–. Etxabe, futbol jokalari ohia.

– Suerte txarra dauka azken aldian. Ez zen orain dela gutxi mendian zulo batera erori, semearekin ehizan ari zela? Egunkarietan agertu zen.

– Ehizan? Mesedez! Zorrak izango zituen edo azpijokoren bat egingo zien bere lagunei. Eta jipoitu egingo zuten.

– Entzuna nuen horrelako negozioetan zebilela.

– Halako etxe handiak nola lortzen direla uste duzu ba? Norbait zapaldu, norbaiti iruzur egin, edo lagun benetan onak izan. Ez dago beste biderik. Bestela, denok biziko ginateke pisu arrunt batean, hipotekak itota. Oihaneko legea da hau. Ez zalantzarik izan.

Hotz sartzen ari da larunbat goizeko eguzkia Martuteneko kartzelako lokutorioan. Kristal higatuetan eragiten duen dirdirak ez die bi gizonei ondo elkar ikusten uzten.

– Manu, ikusi al duzu horko hori? –galdetu dio Igarak, alboko presoa seinalatuz.

Manuk zeharka bakarrik begiratu dio.

– Badakigu leku hau ez dela zuretzat egina, Josu. Ahal dudan guztia egiten ari naiz, eta jendea mugitzen ari da, baina... Berde horiek beste mundu batekoak dira, eta kosta egiten da.

– Berdeak?

– Guardia Zibila. Zeintzuk izango dira ba?

– Ez dakit ba.

– Ekologistak ez, ezta? Xalokeriarik ez nirekin. Ez ahaztu zure laguna naizela.

– Ondo da, ondo da.

Biak isilik gelditu dira. Manuren atzamarrak pianoa bizkorregi jotzen ariko balira bezala ikusi ditu Igarak.

– Ulertzen dut, baina hala ere, besteek zer esango duten kezkatzen nau. Eta familiakoek ere bai. Eta bizilagunek. Eta ezagutzen nauten guztiek... Zer esango dute? Ezaguna naiz inguru hauetan eta izen ona izan dut orain arte. Zure antzera.

– Moldatuko zara, Josu. Ikusiko duzu.

– Ez dakit. Ni bezalakoak erortzen direnean gertatzen dira lintxamendu latzenak. Erortzen denaren kontra gordeta zuten guztia orduantxe azaleratzen da. Beldur naiz.

– Eutsi, Josu.

Emazteak lanetik irten behar izan du Martuteneko espetxera senarraren bila joateko. Musu

eman diote elkarri. Aurpegi hotzak dituzte. Kotxean emazteak hartu du gidariaren lekua.

– Dutxaren azpian orduak eta orduak emango nituzke –esan du senarrak–. Azala zikin sentitzen dut. Zimurtu arte garbituko nuke.

Emazteak baiezkoa egin dio buruaz. Igarak emaztearen belaun gainean jarri du eskua.

– Lanera bueltatu beharra daukat. Bestela, entzun beharko ditut ingurukoen esamesak eta, zer nahi duzu esatea, nahikoa izan dugu orain artekoarekin –zeharka begiratu dio senarrari–. Lanetik irtendakoan egongo gara lasaiago. Zuzenean etorriko naiz etxera. Orain dutxan sartu eta garbitu ondo, eta egin lo pixka bat... Nekatua zaudela ematen du.

– Halaxe nago, Ana.

Ibaetako unibertsitatea alde batera utzi eta Pakea aldera igo dira. Maldan gora joan ahala, Antiguako auzoaren ikuspegi gero eta zabalagoaz gozatu du Igarak. Aparkaleku pribatura iritsi direnean, inoiz baino handiagoa iruditu zaio bere etxea. Atera iritsi arteko pauso bakoitza astiro egin du, duda-mudatan bezala. Ezkaratzean arnasa sakon hartu eta hasperen luzea atera zaio.

– Non daude Ander eta Ainara?

– Eguerdiko hamabiak ere ez dira. Lanez lepo dabiltza eta ezin izan dute etorri. Afalorduan ikusiko dituzu.

Aurpegian keinu gogor bat geratu zaio Igara jaunari. Hitzik ahoskatu gabe sartu da dutxara. Ohera sartzeko aholkatu eta joan egin da emaztea. Igara baineran etzan da, goxo, luze, pentsakor. Loak hartu du harik eta uraren hotzak esnatu duen arte. Lehortu eta ohean sartu da.

Goizean betiko orduan esnatu da, erloju bat gorputzari atxikita baleuka bezala. Ez du sekula hainbeste ordu segidan lo egin. Ohearen beste aldera begiratu du. Emaztea oraindik lo dago. Poliki altxa da, nekearen arrastoak gorputz osoan sentituz, baina berehala egin ditu goizerokoak, eta sukaldera joan da.

Rosamunda alde batera eta bestera dabil bertan. Espetxean zegoen bitartean, Igara jaunak oso presente izan du Rosamunda.

– Egun on –esan dio Igarak.

Rosamundak buruarekin bakarrik erantzun dio.

Emaztea sukaldera sartu denean, seme-alabak non dauden galdetu dio senarrak.

– Ez ziren ausartu zu esnatzen. Eta gaur oso goiz joan behar izan dute lanera.

– Lanetik irtendakoan geldituko gara, ezta? Aspaldiko partez Kontxatik paseoan ibiltzeko gogoa daukat.

– Eguraldi kaxkarra dago, Josu. Eta gainera, sasoi honetan oso goiz iluntzen du. Zergatik ez dugu hurrengo baterako uzten?

Igara jaunak esku artean dituen katilua eta koilara zakar utzi ditu mahai gainean.

– Entzun, Ana; benetan haserretuko naiz jendeak ezkutaketan jolasteari uzten ez badio. Lan asko egin dut orain arte, eta ez dut etxean esker txarreko inor nahi.

Emazteak gosaltzen segitu du, ohi baino polikiago, mugimendu bakoitza neurtzen bezala. Bukatu eta kalera irten aurretik, musu eman dio senarrari.

– Zazpietan geldituko gara Basque kafetegian. Ados? –esan dio emazteak–. Eta oinez buelta gaitezke etxeraino.

– Hainbeste denbora joan da egun hartatik, ia ahaztua nuela epaiketa izango zenik ere – esan dio goxo eta urduri emazteak.

Senarrak keinu etsitu bat erakutsi dio.

Igara jaunari babesa erakusteko bildu diren senide eta lagun bakanen multzo ñimiñoan, nabarmena da Ander eta Ainara deseroso daudela.

Epaitegian luze joan da gaurko saioa. Akusazio partikularreko abokatua sutsu aritu da goiz osoan.

– Orduan, zer sinetsarazi nahi diguzu, Igara jauna? –galdetu dio gaztelania dotorean–. Dirua eman zenion eta handik gutxira dezente gehiago ekarri zizun, ezta? Ez zizun horrek susmo txarrik eragin?

– Diru gehiago ekarri zidan, bai –erantzun dio–, baina hori ez da harritzekoa. Ondo egiten du bere lana. Aspalditik ari da burtsan, inbertsioen kontu horrekin, eta beste makina bat negoziotan ere bai. Kontu ezaguna da hori.

– Negozioak bere afizio nagusia direla behintzat argi gelditzen ari zaigu epaiketa honetan. Zer negozio mota diren... hori beste kontu bat

da. Nolanahi dela, harrigarria iruditzen zait zure xalokeria. Denok ezagutzen zaitugu, Igara jauna. Pasaiako portuan zuk eta beste zenbait kidek kudeatzen duzuen enpresak emaitza ikaragarri onak eman ditu zu han zaudenetik. Eta ezagutzen zaituen jendeak esaten du posizio onean dauden lagunak dituzula. Hori ez du edozeinek lortzen.

Igarak zalantza adierazi dio sorbaldak igoz. Gero, aretora begiratu du. Adi begira dago emaztea. Seme-alabak, aldiz, burumakur. Ez dago jende gehiegi aretoan. Kazetari bakar bat ere ez.

– Zurekin batera atxilotu zituztenak lagunminak dituzu, ezta?

– Hala ziren, bai.

– Orain ez, ala?

– Azken aldian sortu den zalapartarekin, ez dut haiekin hitz egiteko aukerarik izan.

– Zer konta diezagukezu beraiei buruz? Zertan ibili izan dira orain arte?

– Ez dakit. Ez naiz kontu pertsonaletan sartzen.

– Pertsonalak? Ez, ez. Denoi dagozkigun kontuez ari naiz.

– Nik horri buruz zuk bezainbeste dakit.

– Jakina. Zure etekina lortzen duzun bitartean, gor, itsu eta mutu.

Igara jaunaren abokatua ozenki hitz egiten hasi da:

– Nahikoa da. Akusazio partikularrak epaia eman nahiko luke, baina hori epaileari dagokio.

– Beste era batera esango dut –esan du akusazio partikularreko abokatuak–. Zaila egiten zait Josu Igara jaunak kontatu diguna sinestea. Negozioen mundua ondo ezagutzen duen batek jakingo zukeen zertarako erabili behar zuten eskatu zioten diru hori. Droga trafikoan ibiltzen den jendeak tarteka finantziazio arazoak izaten ditu, eta horrelakoetan hornitzaile handiei materiala salerosketaren unean bertan ordaindu ahal izateko ezinbestekoak dira bazkide kapitalistak. Hauek etekin handia lortzen dute oso denbora gutxian. Ez zenekien hori, Igara jauna?

Igarak aretora begiratu du berriro. Emaztea lurrera begira dago orain, seme-alabak bezalaxe.

Sukaldeko mahaiaren parera iritsi denean, gosari oparo baterako nahikoa eta soberan aurkitu du. Rosamundari begiratu dio, baina honek Igara jaunari bizkarra emanez jarraitzen du, harraskan dauden platerak garbitzen. Ez du Rosamundaren hitzik aspaldi entzun.

Emaztea sartu da, arin, egunkariak eskuan, irribarrea ahoan.

– Nolatan horrelako gosari erraldoia? Bazkaria ematen du ia –esan dio Igarak.

– Badaukagu zer ospatu. Epaiketa malapartatu hori ahaztu ahal izan genuenetik ematen du dena berriro ere bide onetik doala. Epaiaren ondoren, gainera, zuen enpresa ondo doala erakutsiz berriro egunkarian agertu zarenez, zurrumurruak isildu egin direla dirudi. Bazen garaia.

– Tira, Ana...

– Ahaztu aurretik: atzo zure lagun horrekin topo egin nuen. Juan Imaz izena duela uste dut. Epaiaren ondoren sari hori eman zizun elkarteko arduraduna.

– Saria ere ez zen.

– Berdin dio. Kontua da harekin topo egin nuela eta eskerrak eman nizkiola den-denagatik; eta berak, apal, meritu osoa zurea zela esan zidan. Tipo jatorra da, ez zaizu iruditzen?

Senarrak musu eman dio masailean.

– Eta orain, gainera, Anderrek lan on bat dauka. Gaur bigarren eguna. Ea zer moduz doakion.

– Ondo moldatuko da.

– Hori ere ospatu behar dugu, beraz.

Igara jauna leihotik kanpora begira gelditu da. Udazkena da berriro. Laster negua. Bazter guztietan nabari da. Inguruko zuhaitzak biluzik gelditu dira ia, adarrak ezkutatuko dituen estalkirik gabe.

Alaba agertu da sukaldean, eta handik gutxira bere neba.

– Zer moduz enpresa dotore horretan, Ander? –galdetu dio aitak, kafe kikara aho parera eraman aurretik.

– Hasieran pixka bat urduri, baina gustura. Leku ona ematen du –erantzun dio pozik.

– Oraindik ni falta naiz, aita –esan du alabak.

– Ez naiz zuetaz sekula ahaztu. Ezin zarete kexatu. Zuek nitaz... zuek ez zaitezte nitaz ahaztu. Horrek ezin du ezer onik ekarri.

Semea kolpe batez altxa da aulkitik eta mahaiaren inguruan eserita dauden hirurei esan die:

– Ez dezagun ezerezetik drama bat sortu, jaun-andreok.

Barre egin dute sukaldean dauden guztiek, Rosamundak izan ezik, beharbada euskaraz ez dakielako.

Lapurrak

Zakurrari begiratu zion.

– Nire senarrari lezioak eman beharko dizkiok. Hire munduan gauzak apaingarririk gabe egiten dituk behintzat.

Arnasa patxadaz hartzen ari zen zakur txikia. San Inazio elizatik zetozen zazpi kanpaikada entzun ziren. Emakumeak eskuaz laztandu zuen ilea galtzen ari zen zakurraren gorputza. Mahukan gelditu zitzaion lerdea igogailuaren paretak igurtziz kendu zuen. Igogailutik irten orduko uhalari tiraka hasi zen zakurra. Emakumeak askatu egin zuen eta, etxeko atea ireki bezain azkar, amorruzko zaunka batean joan zen lasterka korridorean zehar. Atzetik joan zitzaion emakumea.

– Zatoz hona! Tobaritx, zatoz hona!

Egongelatik zetozen zaunkak. Zakurra ezin kabiturik zebilen. Albo batean, lurrean erabat uzkurtuta, gizonezko maskal bat zegoen.

– Ez, mesedez, ez!

Emakumeak ea nor arraio zen galdetu behar zionean, aldameneko logelan kristal hautsien hots handi bat entzun zen. Emakumea mugiezinik geratu zen. Gizonezko bat sartu zen egongelara, pistola eskuan.

– Baztertu zakurra! –agindu zion emakumeari.

Zaunka urdurien artean saltoka ari zen zakurra, eta jabeak kostata urrundu zuen lurrean bola bat eginda zegoen gizonarengandik.

Pistoladunak gizonezko argala arrastaka zutiarazi eta paretaren kontra bota zuen.

Musika geldoa. Bi gizonetako bat sofan botata, sabaiari so. Bestea, leihotik pareko etxeari begira, aulkian gero eta gehiago hondoratzen.

– Aldazak. Bareegia duk ezer onerako.

– Musika? Zazpiak bost gutxi dituk oraindik. Nahikoa denbora izango diagu mota guztietakoak entzuteko.

– Bareegia duk –hasperen egin zuen–. Dena zagok bareegi. Hori ez duk ona guretzat. Lanik gabe geratuko gaituk aurki. Eta zer egingo diagu

orduan? Nik ez zakiat ezer egiten. Baina hori bankukoei berdin zaiek. Ea nola ordaintzen diedan hileroko iraultza zerga hipotekarioa.

– Ez gaituk lanik gabe geratuko. Betiko arazoa ez bada, aterako duk besteren bat.

– Azkenean edozeinentzat lan egiten bukatuko diagu, Errusiatik Mediterraneora joan diren militar eta polizia horiek guztiek bezala.

– Zergatik kezkatu? Lanean, definizioz, putakumeentzat egiten duk lan.

– Serio ari ninduan.

– Serioegi. Nik hilabete bukaeran sosak poltsikoratu eta bankuari mailegua ordaintzeko egiten diat lan. Hik beste zerbaitetan sinesten duk ala?

Gazteenak leihotik begiratzeari utzi eta lurrera zuzendu zuen begirada.

– Entzun ondo, gazte. Ni zakur zaharra nauk eta ez diat ipuinetan sinesten. Nire lana egiten diat eta kito. Pisu hori zaindu behar dudala. Ondo. Tipo hori babestu. Ederki. Hura egurtu. Konforme. Egun batzuk besteak baino hobeak dituk. Baina hilabete bukaeran sosak. Gainerakoa ez zaidak interesatzen. Hiri bai?

– Zer esango diat ba! Bizimodu hau ez zagok gaizki. Soldata ona... Tira, hik esaten duan bezala, gure bezeroak putakumeak dituk, baina haien kontra egiten dutenak putakume askoz handiagoak. Ez zaik iruditzen?

– Ez ditek guri pagatzeko gaitasunik. Hori bai dela egia.

– Bakarrizketak egiten dituzten telebistako saio horietako batera joan beharko huke. Tipo umoretsua haiz.

– Lanik gabe geratzen bagara, akaso hik ere joan beharko duk, gazte.

– Ez, benetan ari nauk. Lanbide hau ez zagok gaizki. Ez diat sekula arazorik izan. Adi egotea besterik ez duk. Eta normalean ez duk ezer gertatzen. Orain, adibidez, zenbat denbora zaramaagu zinegotzi horren etxea zaintzen? –gazteak arnasa sakon hartu zuen–. Gainera, berak ez gaitik ezagutzen, guk bera ere ez... Beste edozein lanetan bi sosengatik anormal andana jasan behar duk.

Bafleetatik abesti biziago bat irteten hasi zen.

– Kaka zaharra!

Pareko etxeko aldamioan gora norbait zihoala ikusi zuten. Mahai gaineko giltzak eta pistola hartu eta korrika bizian irten zen gaztea. Beste gizona, musika itzali, sakelako telefonoan zenbaki batzuk sakatu eta leihotik begira gelditu zen.

Esku iharrez heldu zion aldamioari. Gorantz begira zegoen.

– Orain esan ahal izango diagu ez garela inoiz gure kasa hain gora igo.

– Ni ez noak.

– Zer esaten ari haiz?

– Azken mohikanoa, izen horixe jarri zidak medikuak –burumakur gelditu zen.

– Medikuak? Ez hadi arduratu handiuste horrek esaten duenaz.

– Ez al duk ikusten? Ivan, Txino, Bea, Manu...

– Uztak. Ez diat gehiago entzun nahi... Guk hemen segitzen diagu. Ez duk gutxi, ezta?

– Ez, baina aurrerantzean ere hemen segitu nahi diat. Eta horretarako birziklatu egin beharko gaituk. Ez al duk ikusten? Gure garaia joan

zuan. Eta hobe horrela. Ez al duk gogoratzen orain dela oso gutxi arte zertan ibili garen?

– Aspaldi honetan txintxo ibili gaituk. Orain premia zaukaagu. Dirua lortzeko modu hoberen bat topatzean, badakik kontu hauek utzi egingo ditudala. Hi lasai!, hor goiko etxekoei mesede bat egingo zieagu: telebista eta musika katea hartuta, zabor pila batetik babestuko ditiagu.

– Ez naik horrek kezkatzen. Kontua duk, orain dela gutxi arte gurea lortzearren edozer gauza egiteko prest geundela. Galdetu zuen amari. Edo gureari. Zenbat aldiz aldatu ditek sarraila hiri giltza berririk eman gabe?

Elkarri begira gelditu ziren. Aldamioari helduta zegoenak garai bateko txandal fosforito berde bat zeraman. Besteak, berriz, handi gelditzen zitzaizkion bakeroak eta kamiseta zuri zahar bat. Miguel Imaz kale osoan ez zegoen estetikoki beraiek bezain ezberdina zen beste inor.

– Ez didak gogorarazi behar gure bizitza zabor hutsa dela. Zer egingo zioagu ba?

– Ni errehabilitazioan hasiko nauk.

– Behin baino gehiagotan entzun diat horixe bera, eta begira, orain hemen hago nirekin aldamio honetatik igotzear.

– Eta zer egingo diat nik hortik diru pixka bat lortzen badugu? Eros dezakedan guztiak kalte egiten zidak. Baina orain gauzak beste era batera ikusten hasi nauk. Hik ere hasi beharko huke. Pentsa, Poliziak ere ez gaitik salataritzat nahi. Orain bai garela estoldetako biztanle. Kalean harriduraz begiratzen zigutek. Dagoeneko belduррik ere ez diagu eragiten. Agian errukia. Azken aldian ikusi duk heure burua ispiluan?

– Egunero. Ezin zioat tentazioari eutsi. Pelikula batean nagoela zirudik.

– Eta horrela segitu nahi duk? Gaur egun ez zagok gu bezalako jenderik. Nik ez diat berriro nire ama saltzeko prest sentitu nahi. Ezta bizilagunari etxea goitik behera lapurtzeko ere. Jonki nazkagarri bat izateari utzi nahi zioat. Egunen batean eroso antzean bizitzeko leku bat izan nahi diat.

– Oso gaizki ikusten haut. Askoz errealistagoa iruditzen zaidak aldamio honetatik gora joatea.

– Hik ikusi.

– Ikusi? Ez, ez. Ni aspaldi itsutu ninduan!

– Gutxienez itxaron ezak eguna pixka bat ilundu arte. Zazpiak bost gutxi dituk oraindik. Argi gehiegi zagok aldamioan gora joateko.

– Marisa, jarri mesedez uhala zakur zikin horri! –agindu zion senarrak.

Emazteak mehatxuzko begirada zuzendu zion, eta herentzian jasoa zuten etxebizitzari buruzko azalpenak ematen jarraitu zuen. Jabetzan zuten etxebizitzaren alboan etxebizitza alorreko zinegotzia bizi zen, baina horrek ez zuen emakumea kezkatzen. Batetik, bota berri zuten maizterragatik ez zuen sekulan ezer esango zinegotziak, Marisaren ustez hori ez baitzen zinegotziaren kontua. Bestetik, emakumearen iritziz, ondoko etxean zinegotzi bat bizkartzain eta guzti bizitzeak dagoeneko ez zuen inor izutzen, urteak baitziren beraien aurkako erasorik egiten ez zutela, eta beraz, etxebizitzaren salneurriak ez zuen behera egingo, eta hori zen emakumearentzat garrantzitsuena.

– Hala ere, Marisa, etxe hau Gorkari eskaini beharko genioke –esan zion senarrak–. Istiluak istilu, gure semea da... eta oraintxe oso urruti bizi zaigu.

– Saltzeko une egokia da. Inoiz baino handiagoak dira salneurriak.

– Ondo iruditzen zait gure erretiroa bermatzea. Hori badakizu. Baina gaur egun etxebizitzak duen prezioa kontuan hartuta, eta gainera hemen, Grosen, pisua saldu eta erdia guretzat hartuta nahikoa eta soberan izango genuke. Beste erdia Gorkari eskain diezaiokegu. Edo bera etor dadila pisu honetara bizitzera, eta guri trukean arrazoizko diru kopuru bat eman diezagula. Ez dakit, horrelako zerbait.

– Hara! Elizaren kontra hainbeste urte eman ondoren, orain beste masaila jarri nahi duzu. Ezta pentsatu ere! Gabonetan eta udan etortzen hasi nahi badu, alokatu dezala gela bat pentsio batean... edo hobeto, ausartu dadila berriro gure etxea zapaltzera.

– Ez dakit zure jarrera aitzakia edo gorrotoa den.

– Esnatuko al zara noizbait? Berak bere bidea egin du, gure aurka egin ere. Guk geurea egin behar dugu orain.

Biak zakurrari begira geratu ziren isilik. Portalera hurbiltzen ari zen emakume bati zaunka ari zitzaion.

– Marisa, zenbat urte elkar ikusi gabe! Zuen izeba hil zenetik ia ez zaitut ikusi, eta pentsa, orduz geroztik joango zen mende laurdena behintzat.

– Aspaldiko!, zer moduz zaude?

– Zahartuta. Tira, denok aldatu gara.

– Batzuk besteak baino gehiago –esan zuen Marisaren senarrak irribarrez emazteari begira–. Ezta, Tobaritx? –galdetu zuen gizonak zakurrari begira.

Portalera hurbildu zen emakumeari sakelako telefonoa zarataka hasi zitzaion eta bikotea eskuaz agurtuz abiatu zen igogailura.

Marisak mespretxuz begiratu zion senarrari.

– Ni ere gora noa, zer txukundu behar den begiratzera –esan zuen Marisak–. Ea hurrengo astean jendeari erakusten hasteko moduan daukagun.

– Ni ez noa. Hartu zakurra. Bikote ederra egiten duzue. Tira, zazpiak bost gutxi dira. Zazpi eta erdietan hondartza inguruan itxarongo dizuet.

– Ondo da. Zu ez ezertaz arduratu. Gero, erretiroa hartzen dugunean, ez dakit zer erosi nahiko duzun, oporretan urrutira joan eta zure osasuna zaintzeko hau eta bestea egin. Nola ordainduko dituzu? Bizi osoa daramagu soldata eskas baten truke gogor lan egiten, eta orain beste zerbait merezi dugula iruditzen zait.

– Etxebizitza zeurea da. Zeuk erabaki behar duzu. Gainerakoan, niri ez leziorik eman. Gero arte.

Telefonoa belarri parean mantenduz eseri zen aulkian.

– Bilbo? Oraindik ez naun ia kalera irten. Gogogabeturik nabilen... Zer nahi dun esatea? Pisu txiki hau txindurritegi bat dun... Eta hik zer berri dun?

Egongelako argazkiei begiratu zien. Bera ez zen inon ageri.

– Jendeak edozer gauza esaten din. Marisa horrek ez din zinegotziarekin zerikusirik... Ezetz ba. Zinegotzia nire etxebizitzaren alboan bizi dun... Bai, eta Marisa nire etxebizitzaren jabea dun orain. Tira, ez nire etxebizitza... ni duela bi hilabete arte alokairuan bizi nintzen etxebizitza. Baina zer ari ditun esaten, ba?... Zinegotzia eta Marisa maitaleak direla? Bai zera... Zergatik zinegotziak ez duen ezer egiten ni bota nautelako? Berari ez zaio axola...

Egongelako argazkietan bazen ezagutzen ez zuen jendea.

– A zer sormena daukan jendeak! Entzun, hasieratik kontatuko dinat dena. Kontua dun, gu alokairuan sartu aurretik, etxea Marisaren izeba batena zela. Duela hogeita bost urte inguru hil zunan eta orduan sartu gintunan gu. Hori gogoratuko dun... Etxearen herentzia Marisaren gurasoentzat izan zunan eta orain dela ia lau urte hil zitunan biak... Bai, urte berean, batzuetan gertatzen dun... Kontua dun, anaia gaztetan hil zenez, etxearen herentzia osoa Marisarentzat izan zela... Badakin, duela hiru urte edo... Hori dun. Etxetik joan beharra neukala esanez etorri zitzai-

danan, beren semea bizitzera zetorrela eta abar. Baina hainbeste urtez maizter egoteagatik eskubideren bat baneukala jakin ninan, eta azkenean ofizioko abokatua hartuta irabazi ninan epaiketa... Semearena ni etxetik botatzeko aitzakia hutsa zunan. Bestela, ezin omen dun maizterra hain erraz bota. Baina semea Madrilen bizi zunan eta ez zinan bueltatzeko asmorik... Ez, semeak berak esan zidanan. Gozoak jarriko zitunan bere gurasoak orduan. Pentsa... Ez zakinat. Ez zitenan aurretik hitz egina izango edo zerbaitegatik haserretuko zitunan edo auskalo. Behintzat ez zitenan oso pozik bukatuko. Eta hala ere, hiru urte geroago, duela bost hilabete alegia, berriro etorri zitzaizkidanan, berriro semearen kontu horrekin eta, gainera, berehala joateagatik dirua eskainiz... Ezin nindunan berriro bueltaka hasi. Ez neukanan indarrik. Suposatu ninan oraingo honetan semearekin ondo hitz egina izango zutela. Eta tira, gutxienez diru pixka bat lortu ninan.

Egongelako argazkietako batean Eiffel dorrea ikusi zuen.

– Erosteko?... Nire soldatarekin Donostian ez zitzaidanan etxe baten alokairurako ere iristen. Eta ez nindunan pisua ezezagun batzuekin partekatzen hasiko. Eta pentsatu ninan: nahiz eta Donostian ezin gelditu, gutxienez bazeukanat nora jo. Oso inozoa izan naun orain arte. Pentsa, nire adinean konturatu behar jendearen zakurkeriaz bertatik bertara... Bai. Lehen bilobek maite ninditenan, jolasean ibiltzen ginenean eta abar. Orain gero eta helduagoak ditun eta alabak bilobetako baten logelan jarri nain, eta bilobak logela bakarrean elkarrekin zauden, eta ez dakin nola begiratzen nauten... Egia esatea nahi badun, bilobak gorrotatzen hasia naun. Baita alaba ere... Horrelakorik ez esateko? Aholku erraza dun, baina ikusiko dinagu hire garaia iristen denean... Hik hiru seme-alaba dauzkan... baina... gogoratzen al dun nire bizilagun hura, zinegotziak erosi zinan etxekoa? Amona hura seme-alaben etxetik etxera astero aldatzen diten...

Egongelako argazkietako batean bi ume agur eginez ageri ziren.

– Bai... bai. Esan zienat, baina ez diten nahi. Pisu hori inbertsio bezala erosi zitenan: sos batzuk zeuzkatenan aurreztuak, eta pisua erosi eta berehala maizterrak hartu zitiztenan alokairuan, eta horrela alokairuaren bidez etxe horren banku mailegua ia osorik ordaintzen diten. Nik ezin zienat hainbeste ordaindu, eta oraingoz denok zulo honetan sartuta jarraitu beharko dinagu... Orain damutu egiten naun Marisa purtzil horren etxea bere garaian ez erosi izanaz, baina zer nahi dun esatea, beti iritsi izan gintunan justu hilabete bukaerara, eta Manuel hil zitzaidanetik zer esanik ez, eta eskerrak alokairu zahar merke horietakoa zela.

Ezkerreko eskuaz begiak igurtzi zituen.

– Gogoratzen al dun etxe horretan sei bizi gintunan garaiaz? Hura bai zirkua! Orduan sarri etortzen hintzen bisitan, e ahizpatxo?... Baina azkar joan zunan Manuel. Gure ama segidan. Eta, geroago, semeak bere bidea egin zinan eta, ondoren, alabak. Egia esan, etxea oso handia gelditu zitzaidanan... Bai... Nik ere hirekin egoteko gogo handia zaukanat. Urte gehiegi pasa ditun ia elkar ikusi gabe...

Jose Manuel Gris bere bulegoan eserita zegoen. Goizean agertu ez zenez, legegintzaldi osoan lehenengo aldiz joan zen udaletxera bazkalostean. Egunkaria mahai gainean utzi eta Interneten oporretara nora joan zitekeen begiratzeari ekin zion. Ez zen lan erraza. Aukera zabalegia zegoen.

Atea jo gabe sartu zen trajez eta gorbataz jantzitako gizon txiki bat. Zinegotziak irribarretsu agurtu zuen. Gizon txikia aulkian eseri zenerako, bost galdera eginak zizkion zinegotziari.

– Dena bideratuta dago. Atzo hitz egin nuen Iñaki Tolosarekin. Bere alderdian ados omen daude, eta alderdiaren babesean dauden eraikuntza sustatzaileak ere bai. Azken ahalegina falta da, baina tarta nola banatu aurki adostuko dugula ematen du. Urteak kosta arren, azkenean lortuko dugu.

– Lehiaketa publikoan behar adina lan guri egokituko zaizkigula segurua izango da, ezta? –galdetu zuen gizon txikiak.

– Esaten ari ez naiz, ba: egun gutxi barru zehatz-mehatz jakingo dugu, baina hala ere hitz egindakoa gutxi gorabehera bere horretan mantenduko da.

– Sorpresarik ez dela izango espero dut.

– Ez da izango. Haien arerioak gara agian, baina diruari dagokionez, anaiak. Elkarren beharra daukagu.

Etxebizitza alorreko zinegotziak puru kaxa bat atera zuen kaxoitik. «Bakearen pipa» idatzia zuen norbaitek kaxa gainean. Gizon txikiari eskaini zizkion.

– Izan al zara bertan? Oso zelai zabala da.

– Ez naiz oraindik egon. Auzune hori pixka bat bazterrera gelditzen zait. Esango nuke nire bizitzan behin bakarrik egon naizela auzune hartan, hileta elizkizun batean, uste dut.

Elkarri begira geratu ziren, besteak zer pentsatzen zuen asmatu nahian bezala.

– Eta zer diozu? –galdetu zuen gizon txikiak–. Zozketan magiak lagunduko al die zuen seme-alabei etxebizitza bana lortzen?

– Bazter galdu horretan? –erantzun zion zinegotziak harriduraz–. Doazela zuen seme-alabak

mendi punta hartara bizitzera!, hara bestea! Hor eraikiko dituzuen etxeetan ohera sartu eta konbikzioak maldan behera joango zaizkizu.

– Lasai. Mendia eta malkarra besterik ez dagoen lekuan zelaia utziko dugu, etxeak zuzenzuzenak atera daitezen. Horrela ez zaizkio konbikzioak inori eroriko.

Barre egin zuten biek.

– Jose Manuel, esan didate orain Grosen bizi zarela.

– Amarako etxea obretan daukagun bitartean. Bestela, Groseko etxea beti hutsik daukagu. Inbertsio bezala erosi genuen, agian semealabentzat, baina alabak Aieten erosi zuen etxea, eta semeak Ategorrietan.

– Villa hori zegoen leku zabal horretan?

– Ezagutzen duzu lekua, ezta?

– Jakina. Esan zidatenaren arabera, zuek lizentzia lortu zenioten jabeari, villa bat zegoen lekuan hiru etxe eraiki zitzan eta trukean etxebizitza bakoitzak izan behar zuen salneurria ezarri zenioten, txikia noski, eta zuek erabaki zenuten etxe horietan nor sartu.

– Zurrumurruak besterik ez. Tira, Groseko etxeaz ari ginen. Kontua da, udan senideren bat egun batzuk pasatzera badator, hondartzatik oso hurbil dagoela... Bueno, egia esan orain aukera duzu: duela gutxi arte nire alboko pisuan alargun bat bizi zen, baina orain hutsik dago, eta uste dut oso txukun utzi duela. Tira, etxe osoan gutxienez lau etxebizitzetan ez da inor bizi. Oraintxe aldamioa dago fatxadan baina, bestela, etxea ondo dago... ez da behar bezain handia agian... Tira, gu han gauden bitartean seguru biziko zinateke: bizkartzainak etxean eta pareko etxean kontrabijilantziako poliziak... maitalearekin egoteko intimitatea faltako litzaizuke baina...

Barre egin zuten berriro.

– Egia esan, eskerrak haiei.

– Maitaleei edo poliziei?

Algararen baten ondoren isilik geratu ziren. Bulegoko paretari begiratu zioten biek. Donostiako mapa handi bat zegoen. Gune berdeek etxebizitzek baino eremu zabalagoa hartzen zuten oraindik.

– Handia da Donostia, e?

– Zentzu guztietan handia. Bai.

Mugiezinik geratzearen arriskua

Giltza sarrailan sartu dudanerako, erabakia hartua daukat: hau izango da bere azken aukera. Etxeko atea ireki eta tabakoaren kea usaindu dut, egongelan sortua, korridore osoan zehar hedatuz doana. Telebista ozen entzuten da. Erosketen poltsak sukaldean utzi eta egongelara joan naiz. Pedro sofan eserita dago telebistari adi begira. Kosta egin zaio ni sartu naizela jabetzea, baina ikusi nauenean harridura aurpegia jarri du, nahiz eta beti iristen naizen ordu honetan. Sofatik jaiki eta muxu eman dit maitekiro. Hatsean ardo eta tabako usaina nabari zaizkio. Berehala eseri da berriro bere betiko lekuan. Albo batean ardo merkez betetako edalontzia dauka. Buruko bezala erabili duen kuxina salbu, sofako kuxin guztiak lurrean botata daude, eta haien ordez manta handi zimurtu bat dago sofan zabalduta. Pedrok arratsalderoko siesta luzea egin du gaur ere. Gauetan ez duela lorik egiten

esaten dit, baina ni etxetik irteten naizen bakoitzean, goizean nahiz bazkalostean, zurrunga batean uzten dut, azken bi urteetan egunero berdin. Uste dut, bazkalostean ordu bat edo bi ematen dituela lo, eta gero esnatu eta telebista ikusten egoten dela ni iristen naizen arte.

– Zer moduz? –galdetu diot.

Ziur aski ez du entzun. Gero eta gorrago dago. Bere baitan ixteko falta zitzaion azken osagaia da.

Hamar urte daramatzagu elkarrekin, eta denboraren poderioz pertsona ezezagun bihurtu da niretzat. Duela bost urtera arte zinemaren munduan ibili zen lanean. Elektrizista zen, bere aita bezala, baina beste zerbait nahi zuen beretzat, definitu gabeko zerbait, beti ere bestelakoa baldin bazen. Eta lanik gabe zegoelarik, pelikula batean postu bat eskaini zioten, zalantzarik gabe onartu zuena. Segidan etorri ziren hurrengo aukerak. Orduan ezagutu nuen nik. Gizon alaia zen, pittin bat fundamentu gabea eta lagunarteko giroaren zalea. Pozik aldarrikatzen zuen bere lana: nire laguntzarik gabe pelikula horiek ez dute argirik, esaten zuen, eta argirik gabe ezin dute

gure bizitzari buruz hitz egin, ezin dute islatu zer moduz gauden. Gure inguruko inork ez zuen Pedroren euforiaren arrastorik ere. Nik, adibidez, ez nuen inoiz zinemara joateko ohiturarik izan; areto ilun horretan denak isilik pantailari begira egotea pixka bat denbora galtzea iruditzen zitzaidan eta, bestela ere, Pedroren pelikula haietako kontuak, pare batenak salbu, urruti geldi-tzen zitzaizkidan. Beste mundu batean bizi nintzelako izango zen agian.

Lagun batek liburuak ekartzen zizkion, han ere bizitza bazela erakusteko, baina Pedrori ez zitzaion irakurtzea sekula gustatu. Liburuak ondo daude, esaten zuen, baina ia inork ez ditu irakurtzen; pelikuletan eta telebistan agertzen ez bazara, ez zara existitzen, eta hori bizitzeko modu tristea da. Arraroa egiten zitzaidan Pedrori horrelakoak entzutea, ordura arte ez baitzitzaion zinema gehiegi gustatu, nik nekienaren arabera behintzat, baina pozik ikusten nuenez, gogo onez hartzen nuen bere aldartea.

Laster utzi behar izan zion halakoak esateari. Pelikuletakoa ez zen inoiz etengabeko lana izan; batzuetan gau eta egun ibiltzen zen, pelikulen

aurrekontua murritza zelako, eta tarteka bi hilabete egiten zituen lanik gabe baina patxada ederrean, bazekielako aurki deituko ziotela. Baina pelikulen arteko denbora tartea handitzen joan zen, harik eta berriro deitu ez zioten arte. Dirua jartzen duten horiek beti kanpora begira daude, esaten zuen, etxeko kontuez arduratu gabe, eta ustez pelikulak baino garrantzitsuagoak diren hamaika txatxukerietarako erabiltzen dute dirua, gure herri hau erakusleiho bat bihurtzeko; eta bitartean ez dakigu nolakoak garen, ez dakigu ezta zer moduz gauden ere.

Pedroren hitz haiek gogoratzean beharbada barre egin beharko nuke, bizitza oso ironikoa delako, eta hala ere, ez dut batere gogorik. Gaurkoa ez delako egun bat gehiago. Eta Pedro ez da konturatu. Telebista, ardoa eta zigarroa besterik ez zaizkiola axola dirudi. Nik, aldiz, bularreko koxkorra dut gogoan. Gaur medikuarenera joan behar izan dudala ere ez du oroitzen Pedrok. Oso triste nago. Haserretzeko kemenik ere ez daukat. Beti izan al da horrelakoa? Akaso ez naiz orain arte konturatu. Beharbada bularreko kox-

korra behar nuen horretaz jabetzeko. Zeinen xaloa izan naizen.

Furgonetan banatzaile lanetan hasi zenean dena ondobidean jartzen ari zela pentsatu nuen. Orain erraza da ikustea esperantza horrek ez zuela zentzurik. Pelikuletako lanak bukatu zitzaizkionean, zenbait lan kaskar lortu nizkion eta, azken hau, furgonetan opil industrialak banatzen ibiltzea, guztietan arriskutsuena zen bera bezalako batentzat, betidanik edan duelako behar baino gehiago. Istripua goiz-berandu gertatu behar zen. Eskerrak behintzat kalte fisikorik izan ez duen. Dena den, aurreikusi behar nuen gidabaimena kenduko ziotela. Harrigarriena beste kotxekoaren jarrera izan zen niretzat. Urteetan xaloegia izan naizelako agian. Beste kotxekoa auzoko ezagun bat zen, Pedrorekin tarteka tabernaz taberna ibiltzen den horietako bat, lagun itxurako bat. Pedrok moldatuko zirela esan zion, baina besteak aspaldi utzi zion aste tartean edateari, eta bi aldiz pentsatu gabe deitu zion Poliziari. Orduan, jakina, Pedrok behar baino alkohol gehiago zeraman odolean, askoz gehiago, eta gidabaimena kendu zioten. Orduan hasi zen

ohiko garagardoarekin eta ardoarekin batera vodka eta whiskia edaten, eta egunero berrogei zigarrotik gora erretzen, eta telebistaren aurrean orduak eta orduak ematen.

Duela hiru hilabete langabetuentzako laguntzak bukatu zirenetik, Abegi SAren bulegoak garbitzetik irabazten dudan soldata bakarrik sartzen da etxera. Gure aurrezki eskasak ere bukatzen ari zaizkigu.

– Zer moduz? –galdetu diot berriro, bost minutu muturen ondoren.

Pedroren gorreria uste baino handiagoa da.

– Zer moduz? –galdetu behar izan diot berriro.

– Ikusten duzu, Mertxe, telebistako jende honi begira. Beste mundu batekoak dira.

– Egun osoa pasatzen duzu, ba, telebista ikusten.

– Besterik ez dagoelako.

– Non, telebistan ala bizitzan?

– Ez dakit zer esan nahi duzun –ardoz betetako edalontzia aho parera eraman du–. Baina ikusiko duzu nire laburmetraia egiten dudanean. Nolakoak garen islatuko dut, zerk kezkatzen gai-

tuen, zerk pozten. Gu bezalako jendea agertuko da, auzoko jendea, pertsona arruntak.

– Ba al da horrelakorik?

– Zer gauza bitxiak esaten dituzun, Mertxe. Nik ez dakit teknikoki gauza asko egiten, baina horretarako daude zinemako lagunak. Deitu eta pozik etorriko dira. Lagun onak dira... Ikusi –esan dit telebistaren pantailari begira–, zeinen zaldi polita! Halako bat jarriko dut nire laburmetraian, bukaeran, auzoko kaleetan aske korrika. Sinbolo indartsu bat izango da.

Zaldiarena entzuteaz aspaldi aspertu nintzen. Ia hilero kontatzen dit, ideia berria balitz bezala. Lau urte baino gehiago daramatzat laburmetraiarena entzuten. Ez dio inori dei bakar bat ere egin, ez du lerro bakar bat ere idatzi, ez du ezer gauzatzeko gaitasunik. Lehen behintzat bere Super-8 kamera txiki horrekin ibiltzen zen frogak egiten. Orain hori ere ez. Eta hala ere, egingo duela sinesten du. Hori da bere plazeboa.

– Bestela ondo? –galdetu diot.

– Zaharrak berri.

Aspaldian ez dit galdetu zer moduz nagoen. Niri buruz dakien guztia nire ekimenez kontatu

diot, ez berak ezer galdetu didalako. Ez dakit ardura faltagatik den edo ausardia eskasak eraginda; bere burua eramaten nahiko lan badu-eta, beharbada, ez da nire kezka txikiena jasateko gauza. Orain arte kostata eraman dut jarrera hori, baina dena aldatu da: bi aste lehenago dutxan nengoela bularrean koxkor bat sumatu nuen eta, hamalau egun luzez zain egon ondoren, gaur eguerdian joan naiz medikuarenera. Pedrok ez du gogoratzen edo ez du oroitu nahi. Ez dakit zer den okerragoa. Bi aste hauetan ez diot ia ezer kontatu, kezka arinen bat besterik ez, eutsi egin diet nire hitzei, eta aipatu diodan larritasun bakoitzeko Pedrok itxaroteko erantzun dit beti, emaitzak jakin arte ez duela hitz egitea merezi; eta orain, emaitzak iritsi direnean, ez du oroitzen.

Ez dut gogorik sofan bere alboan eserita denbora gehiago egoteko, Pedroren azken urteetako tronuan. Egongelatik sukaldera joan naiz zuzenean, etxeko arropak jantzi gabe, afaria prestatzeko asmoz. Pedro harritu egin da, beti galdetzen diodalako zer nahi duen, nahiz eta badakidan ez duela gurekin afalduko. Ez du ia jaten. Al-

koholak eta tabakoak betetzen diote sabela. Eta gaur ere, egun bat gehiago balitz bezala, zer moduz nagoen galdetu gabe, ni iritsi eta berehala jaitsi da tabernara. Tabako bila noa, esan du. Han izango ditu zain tabernako kideak; ustez, haiek dira bere lagunak, baina tabernarako bakarrik, eta ez beti, gainera.

Harraskan aurkitu ditut bazkariko plater, ontzi eta gainerakoak, garbitu gabe. Duela hilabete batzuk arte mehatxu egiten nion: harrikoa egiten ez baduzu, ez dizkizut arropak lisatuko. Ez dio batere axola, eta azkenean nik sufritzen dut gehien, jantzi zimurtu horiekin kalera irteten ikusita.

Eneko ailegatu da, ilea bustita, xanpu usainez.

– Zer moduz? Zazpi urte izateko oso berandu bukatzen dituzue entrenamendu horiek.

Enekok ez du ezer erantzun. Arropa zikinak garbigailuan utzi, bere logelara joan eta pijama jantzita eseri da sukaldeko mahai aurrean.

– Gosetuta etorriko zinen, ezta?

– Bai, oso.

Pedro tabernara joan denez, gutxienez aitak eta semeak ez dute elkarrekin afalduko. Eskertzekoa da, beti tekelan ibiltzen dira-eta. Pedrok bereziki estu hartzen du Eneko, gehienbat tabernatik bueltan eztabaida txoroetarako gogoz itzultzen denean. Ez al duzue ezer ikasten eskola horretan, esaten dio Pedrok ahal duenero. Norbaiten gainetik gelditzeko gogoa dauka, orain inoiz baino gehiago, eta semea egokia iruditzen zaio horretarako. Edozein aitzakia erabiltzen du. Behin batez, esate baterako, Enekok urdaiazpiko egosia bukatu zuelako, sekulako erriete egin zion: badakizu ia hori bakarrik jaten dudala, esan zion Pedrok, eta hala ere, zuk bukatu behar. Etxean daukagun giroarekin ez da harritzekoa Eneko eskolan gaizki moldatzea.

Gaur behintzat ez dute elkarrekin topo egingo. Afaria bukatu bezain laster joan da ohera. Nekatua dirudiela esan diot, eta berak zaldiei buruzko ipuin bat eskatu dit, ezagutzen ez dudan bat, eta ni ere oso nekatua nagoela erantzun diot, bihar kontatuko diodala.

Sofan eseri naiz, telebistaren aurrean. Eremu arrotza bihurtu da hau niretzat. Pedrok ardoz be-

tetako edalontzia utzi du alboko mahaitxoan. Hautsontzia ere zigarrokinez gainezka. Hemen egon naiz noiz etorriko zain, telebistan agertzen diren kontuei arretaz begiratu ezinik. Hamaikak jota etxeratu da. Ondoan eseri eta muxu eman dit. Tabakoaren eta alkoholaren kiratsa lehen baino handiagoa da, baina horrek ez nau harritu. Aspaldi ohitu nintzen alkoholikoei darien usainera.

– Zer moduz?

– Eztabaida txiki bat izan dut tabernan. Nire laburmetraiari buruz hitz egiten hasi naiz eta adarra jotzen hasi zaizkit. Pentsatzeko denbora gehiegi dudala esan didate.

– Bestela ondo?

– Ez da beste ezer askorik gertatu.

– Egun gehienak hala izaten dira, bai.

Isilik geratu naizela probestuta, telebista aldera jiratu du burua. Begirada pantailan iltzatuta duelarik, ordu txikietako saio bati buruzko txatxukeriak esateari ekin dio etengabe, horiek ez direla gure mundukoak eta abar. Hitz egiteko gogoa dauka, antza. Telebistako kontuei buruzko bakarrizketarako gogoa. Ohera joan naiz,

beraz. Esperoan segitu dut bertan. Beti bezala, ordu biak paseak direnean sartu da ohera. Biluztu eta nire gorputzari itsatsita etzan da, beso batez nire sabelaldea inguratuz. Medikuari buruzko zerbait aipatzear egon naizen arren, aldi berean oroitu dut hilabete lehenago izan genuen elkarrizketa: erosketak egin ez zituelako demandan hasi nintzaionean, berak laburmetraian lanean ari zela erantzun zidan, eta nik gordin bota nion hasi zenetik lau urte joan zirela eta oraindik ez nuela ikusi pauso txiki bat ere egiten, eta bera hasieran dena buruan ondo gordeta zeukala esanez defendatu zen, baina gero negar batean lehertu zen, dena gaizki ateratzen zitzaiola esanez. Urteak daramatza ezer egin gabe, ezertan saiatzeko ausardiarik gabe, eta badakit ez dela erraza eguneroko kontuekin burutzea, niretzat ez behintzat, baina dena gaizki ateratzen zaiola esan ahal izateko gutxienez zerbait egiten saiatu beharra dauka, sofan eserita ezer ez delako gaizki ateratzen. Gau hartan negarrez hasi zenean, ez nintzen ezer erantzuteko gai izan ordea. Badakit oker egindakoak kritikatzen ez badizkiot bere horretan jarraituko duela, eta ba-

dakit kritika egiten badiot erasotua sentituko dela eta bakardade horretan sakonago murgilduko dela. Eta gaur ere zalantzak izan ditut, medikuarena esan edo ez. Pentsamendu horiek bueltaka ditudala hartu nau loak. Tarteka esnatu naiz, azken bi asteetan bezala, medikuak zer esango zidan beldurrez esnatu izan bainaiz, baina orain nekeak jota nago, eta horregatik loak gaina hartu dio kezkari.

Goizean iratzargailuko albisteek esnatu naute. Iraken hildako gehiago. Pedro lo seko daukat alboan, irratiko hotsik batere entzun gabe. Kostata altxa naiz. Korrika eta presaka bete ditut zereginak. Normalean baino ordu laurden lehenago gaude Eneko eta biok etxetik irteteko prest. Logelan itxaroteko eskatu diot. Gure logelan sartu eta Pedro esnarazten saiatu naiz alferrik. Aspaldi ez naiz Pedro esnatzen saiatu, gutxienez Enekorena gertatu zenetik: arratsalde batez normalean baino goizago bueltatu zen eskolatik, eskaileretan behera erori eta gorputz osoa kolpez beteta zuelako; eta aita sofan etzanda topatu zuenean, hitzez esnatzen saiatu zen, arropa eranzten lagundu ziezaion, baina Pedrok

ez zuen erantzun, eta Eneko berriro saiatu zen, ia oihuka, eta Pedrok mugitu gabe jarraitu zuen, eta Eneko benetan larritu zen, alde batetik bestera mugitu zuen aita, oihuka, azkenerako negarrez; eta bizilagunei deitu zien, baina ez zegoen inor, eta niri deitu zidan baina telefonoa kobertuaz kanpo neukan, eta orduan korrika joan zen eskaileretan behera, etxeko atea irekita utziz. Portalean zain aurkitu nuen. Gertatutakoa kontatu zidanean, lotsaren lotsaz ez nintzen ausartu argitzera bere aita mozkortuta zegoela eta horregatik ez zela esnatzeko gai izan.

Oroitzapen hori gogoan, lehen baino askoz sutsuago astindu dut Pedro. Begiak erdizka ireki ditu. Burua mugitu eta muxu eman dit eskuan.

– Ideia berri bat izan dut –xuxurlatu dit–. Zaldia taberna batetik irtengo da eta gero etxez etxe joango da, eskaileretan gora eta behera, eta ondoren kaleetan trostan ibiliko da, askatasunaren sinbolo bezala.

– Zer zaldi? Zer askatasun?

– Laburmetraiako zaldia. Zein bestela?

Laburmetraia aipatzen duen bakoitzean, Pedroren azken akzioaz akordatzen naiz: behingoz

auzotik irteteko autobusa hartzera ausartu zen duela hilabete batzuk, eta gidariaren parera iritsi zenean, gorri bat eskatu zion, ardo gorri bat!; txoferrak ez zion ezer ulertu, eta orduan Pedrok bere kolkorako barre eginez eskatu zion tiketa. Orain auzo osoak daki.

– Zer kalamidadea zaren –esan diot amorruz–. Beti nabil zuri tiraka eta zu beti zure zilborrari begira.

– Zertaz ari zara?

– Ez al duzu gogoratzen atzo medikua nuela.

– Atzo? Ez zenidan ezer esan. Nik ez nekien.

– Mesedez, Pedro. Nire bularreko koxkorra ahaztu duzu ala?

– Nahikoa da, Mertxe. Errietan ari zara beti. Ni saiatzen naiz zurekin goxoa izaten, eta zuk dena gaizki egingo banu bezala hitz egiten didazu. Ez al duzu ikusten nire bizitza ez dela batere erraza. Ez al duzu ikusten zeinen lur jota nagoen. Zuk dena zailtzen didazu.

Ohetik salto batean altxa naiz eta bi edo hiru pauso atzerantz egin ditut. Pedrorengandik urrundu beharra sentitu dut.

– Ez dakit konturatu zaren aspaldi ez didazula zer moduz nagoen galdetu. Ez zaizu interesatzen?

– Ez esan hori behintzat.

– Zer nahi duzu, isilik egotea? Ez al zara konturatzen?

Pedro agondu egin da.

– Ez al duzu jakin nahi medikuak zer esan didan?

– Noski jakin nahi dudala. Atzo bilera bat izan nuen eta badakizu...

– Zer bilera? –esan diot, gezurra eteteko asmoz.

– Dena kontrolatu nahian ari zara berriro.

– Orduan zer, ez duzu jakin nahi medikuak zer esan didan?

– Zain nago. Ez dakit zergatik ez didazun esan nahi. Beti berdin zabiltza, Mertxe. Gauza guztien errua nirea dela ematen du.

– Nola esan dezakezu hori? Ni zure alde saiatzen naizen guztia ahaztu zaizu ala?

– Ez, ez. Laster Erroman santu egingo zaituzte.

– Orduan ez duzu jakin nahi medikuak zer esan didan?

– Ez badidazu esan nahi, ez esan.

– Nola esan dezakezu hori? Horrelako kontu batean ere ez dituzu zure harrokeria eta utzikeria irentsiko, ezta?

– Egin ezazu nahi duzuna, Mertxe, beti bezala.

– Nik nahi dudana?

– Bai, sudurraren puntan jartzen zaizuna.

Buelta erdia egin eta Enekoren logelara joan naiz. Ohe gainean eserita dago, zain, gomazko pilota bat bihurritzen. Atea itxi dut. Enekori beldurra nabari zaio.

– Elkarrekin joango gara eskolara. Goazen.

Eskutik heldu eta atzera begiratu gabe joan gara eskaileretan behera. Pedro ez da gure atzetik etorri. Enekok estu oratu dit eskua. Kalera iritsi garenean, begira-begira gelditu zait.

– Gaixo al zaude, ama?

Batzuetan uste dut Eneko oso txikia dela eta ez dagoela egoeraz jabetzeko adinean, baina umea izanagatik ez da inozoa, eta, gainera, etxe

txiki horretan paretak paperezkoak direla ematen du.

– Ez, lasai. Gaixo nengoela uste nuen eta horregatik joan nintzen atzo medikuarenera. Oso ondo nengoela esan zidan, ez kezkatzeko. Benebenetan, Eneko, lasai.

Berehala iritsi gara oinez eskolara. Eneko begira daukat oraindik.

– Ez dizut gezurrik esan. Triste nago, baina ez da horregatik. Aita eta biok elkarrekin haserre samar gaude, eta pentsatu dut hobe izango dela lo egitera aitonaren etxera joatea. Nik eramanago dizkizut arropak eta eskolako gauzak.

– Eta aita?

– Ikusiko dugu ea larunbatean elkartu gaitezkeen.

Muxu eman diot eta eskola barrura abiatu da.

Lanera joan beharra daukat, Abegi SA ditxosozko hori garbitzera. Ea hurrengo egunetan nola moldatzen garen aitaren etxean. Eskolatik urruti samar dago, baina asmatuko dugu zerbait. Bestela ere izango dugu arazo mordo bat. Aitari ez diot bularreko koxkorrarena aipatuko. Ez da ezer, hilekoak eragindako gantz pixka bat beste-

rik ez. Amaren heriotzaren ondoren, askoz gutxiagorekin ere larrituko litzateke.

Gaur behintzat oskarbi dago. Ez da gutxi. Eta laster oporrak.

Enekok eta biok elkarrekin egoteko denbora gehiago izango dugu.

Despedida

> Beso batez gerria heldu dit eta beste eskuaz jakaren botoiak askatzen hasi da, eta gero blusaren botoiekin jarraitu du. (...)
>
> – Oso ondo –onartu diot; eta nik askatu ditut azkeneko botoiak–. Dean etorri aurretik. Egizu azkar.
>
> RAYMOND CARVER

Kepak hogeita hamahiru urte zituen. Ordurako Amaratik, bere betiko auzotik, urrun samar bizi zen, pisu txiki, deseroso eta garesti batean, bizilagun zaratatsua eta alboko zakur zaunkaria eta guzti. Lantokian saileko nagusi alfer eta exijentea zeukan, eta Abegi SAk ez zion sei hilabete baino gehiago iraungo zuen kontraturik eskaini nahi izan azken bi urteetan, enpresarentzat merkeagoa zelako eta, arazoak sortuz gero, arazorik gabe kalera zezaketelako. Zazpi lagunentzako lekua zuen kotxe handi eta erosoa zeukan bere

bikotekideak eta berak erabiltzeko. Hartara, urte gutxian pilatutako zorrak ordaintzera iristeko bakarrik bazen ere, bazekien ehun urtera arte behintzat bizi beharko zuela. Bitarte horretan, elizan ezkonduko zirela adostu zuen bikotekidearekin, nahiz eta Kepa bataiatua ere ez zegoen.

Imanolek antolatu zuen despedida, Keparen despedida izanik ere, berak egin izan ez balu ez baitzukeen beste inork ardurarik hartuko, eta Imanolek bai baitzekien Keparentzat ezkontza baino askoz garrantzitsuagoa zela despedida. Mikelek lagundu zion Imanoli, gogo txarrez baina, dena haren gain ez uztearren.

Despedidarako, Kepa eta hamabi lagun elkartu ziren larunbat eguerdi batean.

– Nolatan gonbidatu dituk bi horiek? –galdetu zion Mikelek Kepari, autopistan aurretik zihoakien Ander Igara eta Iñaki Tolosaren kotxeari begira.

– Nola esango nikek? Iñakik lortu zidaan orain Abegi SAn daukadan lana. Eta tira, azken finean bi horiek ere gurekin egon zituan gelan, ezta?

– Zoritxarrez, bai. Zorionez hemen ez dauden beste asko bezalaxe.

– Egun eta erdi besterik ez duk izango, Mikel. Saiatu hadi ondo pasatzen. Orain ez zagok axola duen beste ezer.

Zornotzan bazkaldu zuten. Elkarrekiko hurbiltasuna urrun gelditzen hasia zitzaiela nabari zen giroan, baina sagardoak eta hitzontzien zaratak aise bete zuten isiltasuna.

Lepo janda abiatu ziren Zugaztietara. Ibaizabalen inguruan garatu zen lehenengo industrializazioaren eremuak ziren. Milaka lagunek lan egin izan zuten meatzeen inguruan, duela gutxi Foru Aldundiak diru publikoz eraiki zuen golf zelaitik hurbil, paint ball batean hartu zuen ordua Imanolek bazkalosterako. Hamahiru laguneko taldea bitan banatu zen. Batetik: Kepa, Imanol, Mikel eta beste lau. Bestetik: Iñaki, Ander eta beste lau. Irainka hasi ziren, talde bat besteari. Elkar akabatzea zen jokoaren helburua. Izerdi patsetan ibili ziren, pinturaz betetako armak eskuetan. Keparen taldeak irabazi zuen, imajinatuko zenuten bezala.

Dutxatzeko eta gauerako prestatzeko jaitsi ziren Bilbora, Imanolen gurasoek Gran Via inguruan zuten etxebizitza handi huts batera. Gainerakoak izerditsu eta garagardo bana eskuan egongelan sakabanatzen ziren bitartean, Iñaki dutxatu zen lehenengo, eta Ander gero. Soinean galtzontziloak soilik zituela irten, sofan eseri eta Anderrek mahai gainean bereizi zituen kokaina marrak. Hamahiru. Bakoitzarentzat bana. Kepak bere poltsa atera eta hauts zuria hamahiru lerro paralelotan itxuratu zuen. Imanolek berearekin hirugarren ilara bat osatu zuen. Marra zuriak desagertzen hasi ziren mahai gainetik. Giroa puztu egin zen. Baina denboraz justu zebiltzanez, ezin zituzten afarirako prestaketak hantxe eten.

Mikelen komunerako txanda iritsi zenean, inoiz izan ez zuen gorputzaldian sartu zen dutxara. Ur beroa plazer ikaragarria zen soinean behera. Xaboia ematearren txorrota itxi zuenean, komuneko paretaren beste aldean emakume baten negar oihuak entzun zituen, eta gero gorputz bat pareta kolpatzen, eta segidan oihu eta kolpe gehiago. Korrika irten zen dutxatik. Biluzik eta

bustita agertu zen egongelaren erdira. Putzu bat osatua zuen hizketan hasterako.

– Ez dakizue zer nolako hotsa atera duen paretaren kontra jo duenean –azaldu zien Mikelek.

– Beldurgarria duk etxe batzuetako giroa –esan zion Anderrek.

– Beldurgarria duk hire piura –barre egin zion Kepak Mikelen gorputz biluziari.

– Zuek ez al duzue ezer entzun? –harritu zen Mikel.

Ezetz erantzun zioten. Eta berehala despedidaren makinaria abian jarri zen berriro. Garai batean entzuten zuten musika hasi zen bozgorailuetan.

– Ez al diagu ezer egin behar? –galdetu zien Mikelek.

Zipitzik ulertuko ez balute bezala begiratu zioten.

Berriro komunera joan zen Mikel. Tarteka kolpeak eta oihuak entzuten ziren oraindik.

– Etorri entzutera. Benetan. Ikaragarria da.

Inor ez zen hurbildu.

– Larrialdietarako telefonora deituko dugu behintzat, ezta?

Musikaren gainetik mutukeria zen jaun eta jabe. Bazter batean botata zeuden galtzetatik telefonoa hartu zuen Mikelek.

– Uztak hori –esan zion Iñakik–. Bihar deituko diagu. Orain deitzen badugu, pikutara joango duk despedida; ertzainak etorri arte itxaron, gero galdera guztiei erantzun, eta abar. Afaldu, parranda lasai egin eta bihar ahaztu gabe deitzea izango duk hoberena. Etxe horretan benetan arazoak badaude, berdin jarraituko ditek bestela ere. Nahikoa duk bihar deitzea.

Gainerakoek sabaira begira eta garagardoak edaten jarraitu zuten. Mikelek musika itzali zuen. Isiltasun pisu hura luzatu ahala, jasanezinagoa bihurtzen ari zen denentzat.

– Zer diozue orduan? –galdetu zien Mikelek.

– Ez dakit ba –esan zuen Kepak.

– Neu arduratuko nauk berriro dena antolatzeaz –proposatu zien Mikelek–. Noizko egingo diagu hitzordu berria?

Inork ez zion kasu egin, ezta begiratu ere.

– Hiri –esan zion azkenean Kepak ahots mehe batez– ezkontzaren kontu hau lelokeria hutsa iruditzen zaik, ezta?

– Ez dik horrekin zerikusirik.

– Tira, Mikel, uztak dagoen bezala –aholkatu zion Garik.

Isiltasun ozen horren erdian, Mikelek motxilatik arropa garbia atera eta azal oraindik erdi bustiaren gainean jantzi zuen. Atezuan begira zituen lagunak. Mikelek kalerako atea ireki zuen.

– Nora hoa?

– Ez zakiat. Buelta bat ematera. Etikagatik ez bada, gutxienez... badakizue larri dagoen norbaiti laguntza emateari uko egitea delitua ere badela?

– Nola izango duk hori delitua! –bota zuen Anderrek.

– Ez al du beste inork ezer esan behar? –galdetu zuen Mikelek.

– Ez haiz konturatu dagoeneko erantzun diagula? –ihardetsi zion Josetxok–. Joan hadi lasai arnasberritzera. Jatetxera baino lehen elkartuko gaituk, nahi baduk, Pozasen.

– Ez duk ba Donostiara alde egingo! –esan zion Kepak.

Imanolek isilik jarraitu zuen.

– Orain kalean ez zaik bururatuko Poliziari deitzea, ezta? –galdetu zion Anderrek–. Bihar egingo diagu.

Mikelek zakar itxi zuen kaleko atea. Harrituta geratu ziren egongelakoak, harik eta Iñakik musika ozen jarri zuen arte.

Dutxatik irten zen azkena egongelaren erdian lehortzen ari zen bitartean, ateko tinbreak jo zuen. Imanolek ireki zuen.

Ertzain bat zen.

– Gabon. Sar naiteke? –esan zuen gaztelaniaz, egongelaren erdira sartu eta inguruari begira hasi zen bitartean.

Arropa izerditsuak, garagardo botilak, hauts zuriz eginiko lerro paraleloak mahai gainean, patata frijituak eta kakahueteak alfonbran.

Ertzaina komunera joan zen.

Egongelakoek txintik ere ez zuten esan.

– Ez da inor dutxatzen ari?

Mutilek elkarri begiratu zioten.

– Zer gertatzen da? Deiren bat jaso duzue? –galdetu zion Garik.

– Bai, baina hemen galderak nik egiten ditut. Erakutsi nortasun agiriak.

Mutilei eskuetatik kendu gabe, ertzainak ez zien arreta handirik eskaini agiriei.

– Zu, beraz, Kepa Sakola zara.

Baietz egin zion buruaz, eztarriko intxaurrak gora eta behera egiten ziola.

– Giro bero samarra duzue hemen, ezta? –esan zuen ertzainak, bere ahoskera bitxian.

Txapel gorria erantzi eta ile luzea bizkarrean behera erortzen utzi zuen. Musika aparatura hurbildu, abestia isilarazi eta poltsikoan zeraman cd bat jarri zuen. Keparengandik hogei zentimetrora kokatu eta alkandoraren botoiak askatzen hasi zen. Bularretako gorria zeraman. Galtzak erantzitakoan tanga gorria azaldu zen begien bistara. Uhin aldakorretan mugitzen zuen gorputz argala. Keparen ezpainak doi-doi igurzten pasa zituen bular borobilak. Iñaki, Ander eta beste batzuk uluka hasi ziren. Egongelako bazter batera alde egin zuen Imanolek. Abestia bukatutakoan, Kepa eskutik helduta logela batera eraman zuen emakumeak. Irribarrea eta izua nahas-mahasean ageri ziren Keparen aurpegian.

Hamaika mutilek begiratu aztoratua egin zioten elkarri.

– Azken orduko burutazio bat izan da –azaldu zien Anderrek–. Iñakiri galdetzeko astia besterik ez dut izan. Tira, ezustekoa eman nahi genion Kepari, eta bide batez zuei. Orain egitea baino ezusteko handiagorik, ezta? Gero afaltzera bapo joateko. Tira, egia esan, neska zazpietarako iristen zenerako lortu behar genuen Kepa dutxan egotea, eta neskak han harrapa zezala, eta abar. Baina Mikelen kontu horrekin...

Emakumeak jarritako musika entzuten zen bozgorailuetan: Joe Cocker kantu ospetsu bat abesten. Musikaren bolumena apaldu zuen Josetxok. Logelatik zetozen emakumearen hotsak entzun zituzten.

– Entzuten? Hor ere norbaitek laguntza behar duela dirudi.

– Deitu Mikeli! Edo larrialdietako telefonora deitu behar dugu?

– Hobe izango da suhiltzaileei hots egitea!

Imanolek haiengan iltzatu zuen begiradan suma ezin zitekeen zerbait zegoen. Txantxetarako gogoa itzali zitzaien une batez. Imanol bazter bateko aulkitik altxa, eta mahai gaineko kokaina lerro bat sartu zuen. Arnasa sakon hartu eta,

salto batean, arropak utzi zituen gurasoen logelara alde egin zuen.

– Ez duk ba Donostiara alde egingo! –oihu egin zion Anderrek, trufaka.

– Segi dezala festak! –ulu egin zuen Patxik.

Garik beste cd bat jarri zuen berriro. Lerro bana sartu zuten Josetxok eta Ramonek. Garagardo gehiago zabaldu zituen Josuk.

Sakelako telefonoa belarri parean zuela itzuli zen Imanol.

– Nori deitzen ari haiz? –galdetu zion Iñakik, asaldatu antzean.

Gizon berria

1. TXOSTENA

2007-09-05

Mercedes Rodriguezen deia igandean 2007ko irailaren 2an 17:43ean jaso zuten larrialdietako telefonoan. Esan zuenez, olatu batek gizon bat itsasora bota zuen Zurriolako hondartzaren espigoian, Kursaaleko kuboen parean.

Bi ertzain kotxe bertaratu ziren 18:00etan. Urpekariak zeramatzan Ertzaintzaren ontzia 18:30ak baino lehenago iritsi zen.

Itsaso oso zakarra eragin zuen ekaitzak, marea bizien garaia izanik. Itsasgora 18:54an zen eta olatuek espigoia aise gainditzen zuten aldika. Lanak 20:00ak arte eten zituzten, baina orduan oraindik bilaketarako baldintzak oso arriskutsuak ziren. Egoera horretan ezin izan zuten ezer aurkitu eta, berehala ilundu zuenez, urpekarien lanak bertan behera utzi behar izan zituzten hurrengo goizera arte.

Irailaren 3an (astelehena) 8:00etan berrekin zioten. Itsasgora 7:15ean bazen ere, bareago zegoen eta lanak espigoiaren bi aldeetara ez ezik Paseo Berrira, Monpaseko arroketara eta Pasaia aldera ere zabaldu ahal izan zituzten. Egun osoan eginiko lanetan ez zuten arrasto bakar bat ere aurkitu.

Irailaren 4ko bilaketa eremua Igeldo mendiko magaletara eta Pasaiako eta Kontxako badietara hedatu zen. Ez zuten gorpurik ez bestelako zantzurik aurkitu.

2. TXOSTENA

2007-09-06

Ertzaintzak lekukoen testigantzak jaso zituen bi egunetan zehar. Hurrengo lerroetan bildu ditugu lekukotasun esanguratsuenen aipuak.

Maria Etxeberria: «Gizon bat zen, bai (...) ile motzekoa. Txamarra gorria zeukan».

Jon Alonsotegi: «Ezin dut ziur esan pertsona bat zen edo ez. Itzal bat ere izan zitekeen (...)

Egia esan, dezente harritu nintzen han aurrean pertsona bat ikusi nuela iruditu zitzaidanean».

Gabriela Esnal: «Pertsona hori erotuta zegoen. Denok Kursaaleko kubotik hurbil bageunden, zerbaitengatik izango zen, ezta? Bera ez, bera hor aurrean. Ulergaitza iruditzen zait. Horrelako egun batean itsasoak indar handia dauka».

Kepa Sakola: «Umearekin nenbilen (...) Zurrumurru handi bat entzun genuen. Olatu handi bat zetorren. Umea oihuka hasi zen. Espigoiaren aldera begiratu nuen nik, eta bertan gizon bat zegoela iruditu zitzaidan (...) Olatua eskubitik etorri eta gizona ezker aldera bota zuen (...) Uretan desagertu zen».

Rosamunda Rodero: «Espigoiko muroan igota zegoen (...) Emakume bat zen. Olatuak ezkerretik eta eskubitik egin zion salto, muturren aurrean, eta jakina, hor muroan igota zegoenez, erraz eraman zuen itsasoak barrurantz arrastaka (...) Emakume bat zela esango nuke (...) ile luzea eta arropa ilunak zeuzkan».

Denera, hogei pertsonaren testigantzak jaso ditu Ertzaintzak. Aipatu ditugun hauetan ageri dira beste guztien oinarrizko ekarpenak.

Ondorioz, lekukotasunek kontraesan handiegiak dituztela nabarmendu behar da. Gertaera bakar batek ezin ditzake hainbeste ikuspegi izan. Testigantzen egiazkotasuna, hortaz, zalantzagarria da.

HANNA

Leipzigeko zeruan dagoen dorre garaiena ikusten da balkoitik. Lehen unibertsitatearen egoitza nagusia zen. Gero Allianz aseguru etxeak erosi zuen. Europako indartsuena omen da.

Dorreari bizkarra emanez atzera sartu da Hanna. Barruan itxi usaina nabari da. Etxean egin duen estreinako paseoan ikusi du gauzak bere horretan daudela:

–kaobazko altzariak,

–paretetan margolari inpresionisten posterrak marko doratuetan sartuta,

–egongelan larru beltzezko sofa eta besaulkiak,

–bolizko figurak nonahi,

–komuneko ate atzean titi operatu erraldoiak dituen emakume gazte biluzi baten posterra,

–sukaldean poteko janaria besterik ez.

3. TXOSTENA

2007-09-07

Ustezko desagerketak oihartzun handia izan du hedabideetan, bereziki bertako prentsan. Polemika biziagotu egin da irailaren 5ean eta 6an. Lekukoek ere gutunak idatzi dituzte egunkarietara. Batzuek Ertzaintzaren bilaketa ez zela egokia izan kritikatu dute.

Prentsa artikuluetan suizidioaren aukera indartzen ari da. Horrelako itsaso zakarra zegoela ikusita, pertsona bat espigoira igo bazen, bere buruaz beste egiteko borondatea izan zezakeela pentsatzea zilegi da.

Egoera zertan den kontuan hartuta, Barne Saileko Juan Iturri prentsaurrekoan agertu da gaur. Ertzaintzaren ikerketan oinarrituz, orain arteko informazioak ukatu egin ditu. Lekukoen tes-

tigantzen sinesgarritasuna txikia dela adierazi du.

4. TXOSTENA

2007-09-08

Prentsak zalantzan jarri ditu lekukoen testigantzak. Orain arte jasotako informazioak ez duela ezer frogatzen adierazi dute egunkari gehienek. Honezkero, bertako prentsa bakarrik arduratzen da gaiaz.

HANNA

Atentzioa eman diote seme-alaben logelan: arropa dendetako bi pertxero luze alkandoraz eta jakaz gainezka.

Logela bereko kartoizko kaxetan:

–familiaren behialako argazkiak,

–eskolako emaitzak eta oharrak; baten bukaeran zera dio: «Txikiak dira oraindik eta, beraiei denbora gehiago eskaintzen

badiezue, zuekiko atxikimendu handiagoa izateaz gain eskolan eta lagunekin hobeto moldatzeko aukera handiagoak izango dituzte».

Komuneko kaxoietan:

–makina bat gaitzen aurkako pilulak: beherakoa, hipertentsioa, burukomina, sukarra, depresioa, etab,

–bizarra egiteko apar pote luze bat,

–bizarra egiteko bost aitzur,

–hortzetako zepillo bat.

–komuneko paper rollo ugari.

–garai bateko perfume garestien bilduma zabala.

Egongelako apaletan bi argazki:

–hogei urteko neska beltzaran ederra eta bere alboan berrogeita hamar urte inguru dituen gizon bat barre algaraka, alkandora loreduna, galtza zabalak eta bota kanperak jantzita,

–beste argazkiko gizon bera esku batean agiri bat (SlipKnot musika taldearen *SlipKnot* diskoa banatzeko esklusibitatea Alemanian, Austrian eta Suitzan) eta bestean

aldizkari bateko artikulu bat (izenburuan «SlipKnot, beren estreinako diskoa izan da lehengo urteko salduenetakoa»).

5. TXOSTENA

2007-09-10

Ustezko desagerpenari buruzko prentsa oharra kaleratu du Ertzaintzak. Hona hemen agiri horren aipu esanguratsuenak:

«Froga gehienek seinalatzen dute, ustez itsasora erori zen pertsona hori ez dela benetan existitzen (...) Lekuko batzuek ez zuten ezer ikusi, eta zerbait ikusi zutenen testigantzak, berriz, kontrajarriak dira (...) Ertzaintzak burutu dituen bilaketa sakonek ez dute desagerketaren zantzurik aurkitu. Prozedura hauek oso zehatzak dira, eta balizko desagerketaren eremu osoa ikertu ostean, inguru horretan gorpu bat egotea ezinezkotzat jo daiteke (...) Azkenik, froga erabakigarri modura, kontuan hartu beharra dago inork ez duela ustezko pertsona honen falta sumatu. Espainiako estatu osoko Polizietatik bakar

batek ere ez du desagerpenaren salaketarik jaso. Ez da arrazoizkoa senideek, lagunek edo lantokiko arduradunek Poliziara ez dutela jo pentsatzea, batez ere ustezko desagerketatik zortzi egun igaro direnean (...) Prentsan albistea asko hedatu denez, zaila da ustezko pertsona honen ingurukoak jakinaren gainean ez egotea (...) Horren guztiaren ondorioz, ziurtasun handiz esan dezakegu, 2007ko irailaren 2an 17:35ak aldera ustez itsasora erori zen pertsona hori ez zela existitzen eta, itxura guztien arabera, eguraldi lausoak eta itsaso zakarrak lekukoei eragindako ilusio bat izan zela».

HANNA

Mesanotxe gainean:

–*Bild* egunkariaren hiru ale,

–liburu bat: Robert Fisher-en *Herdoildutako armadura zeraman zalduna,*

–zenbait faktura,

–Bordeleko ardo garesti botila erdi huts bat eta kopa bat.

Deutsche Bankeko kontu korrontearen agiriak kaxoian:

–1993 arte diru sarrera txikiak,

–1993-2001 urteen artean diru sarrera gero eta handiagoak,

–diru irteera potoloak 1993, 1997 eta 2004 urteetan,

–diru sarrera eta irteera handi ugari 2004 eta 2007 urteen artean.

Galtzerdien kaxoian sei gutun (Angela Schwartzek sinatuak). Zenbait esaldi azpimarratuta daude.

–2006koan: «Nik hasieratik hartu nion itxura txarra emakume horri. Dena oso ondo zihoakizunean ezkondu zitzaizun, eta orain gero eta arazo larriagoak dauzkazunean dibortziatu zaizu».

–2004ko azaroan: «Aspaldi honetan gure arteko harremana oso kaskarra da, baina oraindik zure ama naiz eta aholkuak emateko eskubidea daukadala uste dut. Lurrindenda eta musika banaketarako enpresa ondo joan zitzaizkizun arren, horrek ez du esan nahi orain arropa-denda garesti hori

ere ondo aterako zaizunik. Musikarena orain hain ondo ez badoa ere, hobe duzu horrekin jarraitzea. Orain arte ez duzu gutxi lortu-eta».

–2004ko ekainean: «Guk zer egin dugu gaizki? Maria zure seme-alaben ama den bezala, gu haien aitona-amonak gara eta gure iritzia zuri jakinarazteko eskubidea dugu».

–2004ko apirilean: «Orain dela bi urte jatetxea ireki zezaten diru guztia jarri zenienean nik ez nukeen esango hau gerta zitekeenik, baina, egia esan, zaila da hain fama ona zuen jatetxe bat hain denbora laburrean horrela hondoratzea. Gure bilobak ere badiren arren, esan beharra daukat ixtea beste erremediorik ez zenuela, diru galera lehenbailehen etete aldera. Zuk ulertuko ez zenuela bagenekien arren, guk horixe bera egin behar izan genuen zurekin. Haserre alde egin zenuen Leipzigera, baina argi dago gure erabaki hark zeinen emaitza onak eman dituen: diru asko irabazi duzu harrezkero. Hortaz, orain nire

babes osoa duzu, Walter. Badakit gogorra dela zure seme-alabek zurekin ez hitz egin nahi izatea, baina zuzen jokatu duzu. Denboraren poderioz egoera bere onera itzuliko da, gure artean gertatu den bezalaxe. Biziki pozten naiz ia urtebeteren ondoren gurekin berriro hitz egiten hasteko pausoa eman duzulako».

–2003koan: «Harritzen al zara zuen aita hainbeste haserretzeaz? Ez zenuen nahi gu zuen jatetxe horretara joaterik. Gutaz lotsatzen al zara?»

–1995ekoan: «Lurrin-dendan gero eta diru gehiago irabazten ari zarela entzuteak harro sentiarazten gaitu zuen aita eta biok. Argi dago Leipzig, Ekialdeko Alemania osoa bezala, mea baliosa dela Mendebaldeko alemaniarrontzat. Baliatu. Porrotean bukatu zen gure ametsa zuk gauzatu ahal izango duzu».

6. TXOSTENA

2007-09-13

Irailaren 11ko prentsak bere horretan jaso du Ertzaintzaren agiria. Ez da bestelako ikuspegirik agertu. Irailaren 12ko prentsan ez dago gaiari buruzko aipamenik.

HANNA

Ordenadorean (ez du pasahitzik) Outlook Express irekitakoan, hamaika spam mezu. Eta gainerako mezuen artean bi hauek:

–2004ko bat, bidaia agentzia batetik: «Ene, berrogeita hamar urteetako krisian bete-betean sartua hago (...) Kontatu zidatek zerbait. Pelikuletako banku-lapurrek bezala arropa-dendarekin azken kolpea eman nahi duk eta gero erretiroa hartu, ezta? Emaztea eta seme-alabak dendan aparkatu eta hi Brasilera (...) Aurkeztuko didak hire fitxajea noizbait (...) Riorako hegazkina eta hoteleko erreserbak agindu hizkidan bezala egin ditiat»,

–2003ko bat: «Nahastu egin duzue helbidea. Zuen laguntxo horri beharrean niri bidali didazue e-maila. Zuei buruz zalantzarik banuen, orain uxatu ditut guztiak. Zuek ni baino azkarragoak zaretelakoan? Ulf eta Henry gaixoak... Nik emaztea, semea, alaba, diskoen banaketarako enpresa, semeari eta alabari ireki diedan jatetxea, Leipzigeko etxea, Mallorcakoa eta Alpeetakoa, eta maitale eder bat dauzkat. Eta zuek? Zulo honetan astelehenetik larunbatera niretzat lan egiteaz gain, zer gehiago daukazue?» Eta mezu honi erantsita honako e-mail hau: «Tipoak ez zakik ezer musikaz. Zortea izan zian, besterik ez. Hori iradokitzen saiatu gaituk eta, bidez batez, nazkatuta gaudela bi sosengatik milaka ordu lan egiteaz; baina tipoa barrez hasi duk eta, emaztea alboko gelan bazegoen ere, berriro kontatu zizkiguk xehetasun guztiekin brasildarraren eta bere arteko kontuak. Soilik kontatzeko egiten dituela zirudik. Nori eta guri, bere enplegatuei».

7. TXOSTENA

2007-09-18

Irailaren 17an Jokin Gonzalezen deia jaso zuten 11:13an larrialdietako telefonoan. Zurriolako hondartzan ur ertzean gorpu bat zegoela abisatu zuen.

Hiru minututan bertaratu ziren lehenengo ertzainak. Inguruko ikastetxeetako ikasleak aurkitu zituzten pilatuta Zubiri-Manteo institutuaren parean, batzuk muroan eta gehienak hondartzan bertan, gorpuaren inguruan. Susmoa dago baten batek agian gorpua ostikoz mugitu zuela. Ertzain gehiago etorri arte ezin izan zuten eremua itxi, jendea gorpura hurbiltzen saiatu baitzen etengabe, hura gertutik ikusteko. Gorpua puztua, higatua eta urradura sakonez betea zegoen.

11:52an anbulantziakoak iritsi zirenean, jendeak berehala egin zien lekua.

Epailea 12:47an ailegatu zen.

Aurreneko orduetan ikertu ahal izan zutenaren arabera, Ertzaintzako adituek adierazi zuten, ziur aski itsasoak orain arte gorpua arroken az-

pian edo itsasoaren behe aldean ezkutatua izango zuela. Aurreko egunean sartu zen ekaitzak itsasoa zakartu egin zuen, eta agian horri esker atera zen gorpua azalera.

HANNA

Ordenadorearen mahaiaren kaxoian inprimatutako e-mail ugari daude karpetetan sailkatuta. Adibidez:

–Susana Soares (2007ko abuztua): «Zer gertatzen da, Walter? Zergatik atzeratzen ari da dena? Etxeko jabeak deitu dit esateko beste erosle batzuk dauzkala, eta hurrengo hiru egunetan dirua jartzen ez badugu etxerik gabe geratuko garela. Donostian zaila izango da ezer hoberik aurkitzea. Egin transferentzia lehenbailehen eta ni arduratuko naiz, zuk hango kontuak konpontzen dituzun bitartean. Orain ez zinen zalantzak izaten hasiko, ezta?».

–Maria Schmidt (2006ko apirila): «Banekien ez zinela munduko gizonik azkarrena

baina ez nuen uste hain motza zinenik. Azken asteetan etengabe errepikatu didazu itxura eta dirua besterik ez zaizkidala axola. Hori uste bazenuen, zergatik jokatu duzu horrela? Zer uste zenuen, zuri begira geratuko nintzela nire bizitza hondatzen zenuen bitartean? (...) Niretzat Mallorcako eta Alpeetako etxeak, eta zuretzat Leipzigekoa eta denda».

–Susana Soares (2005eko ekaina): «Nire ahizpak aurkitu du etxea Donostian bertan. Oso hiri polita omen da. Pentsa, hiru hondartza dauzka. Egunen batean bisitan joan beharko ginateke. Surfean ere ikasi ahal izango duzu. Nork daki, agian han galduko diozu beldurra itsaso harroari».

–Ulf Stiglitz (2005eko maiatza): «Azkenean lasaitasun osoz hitz egin diezazuket, Walter. Zure enplegatua nintzenean horrelako gauzak esaten ez banizkizun, ez zen nahi ez nuelako, ezin nuelako baizik (...) Bagenekien eroriko zinela. Horrexegatik ez genizun enpresa goizago erosi. Negoziazio teknika bat besterik ez zen. Orain nahi

baino ordu gehiago ematen ditugu lanean. Soldata ez da zoragarria, baina aurrera egiten ari gara. Aukeratzen ditugun diskoak ez dira gorrentzat eginak. Zure diskurtsoak jasan behar izaten ez ditugunetik botagura desagertu zaigu (...) Ez al zinen konturatu ahal bezain azkar utzi nahi geniola zure morroi izateari? Beste edozeinek egingo lukeen bezalaxe. Ala oker nabil? Tira, kasu batzuetan ziur aski bai».

Telefonoaren erantzungailuan dardaraka dagoen argi gorria itzaltzera joan denean:

–Lehenengo mezua: «Gerhard Kahn naiz, Neumann jauna. Honezkero ongi aski ezagutzen nauzu. Ordainketa oraindik egin ez duzula gogorarazteko deitzen dizut. Ez dut berriro eztabaidan hasi nahi. Zure denda ixteak ez du gure arroparekin zerikusirik. Erosi egin zenigun eta, beraz, ordaindu egin beharko duzu».

–Bigarren mezua: «Hanna, etxean bazaude, hartu telefonoa mesedez. Oso presazkoa da. Diru asko lapurtu didate, asko. Nire abokatuaren telefonoa behar dut. Telefono

gidan dago: Thomas Schiller. Hanna, entzuten al duzu? Ordu honetan joaten zara etxea garbitzera, ezta? Zure telefonorik ez daukat hemen eta nire etxera deitzea beste aukerarik ez zait bururatu. Ez ezer esan ez emazteari... emazte ohiari, ez seme-alabei, mesedez. Ezta beste inori ere. Mesedez. Hanna, hor al zaude? (isiltasuna) Ederki ba. Mila esker zure laguntzagatik, Hanna. Tira, abokatuaren telefonoa Interneten bilatzen saiatuko naiz. Eta bueltatzen naizenean hitz egingo dugu zure ordutegiaz. Ni ez egoteak ez du esan nahi lan egiteari utzi behar diozunik. Agur».

8. TXOSTENA

2007-09-20

Autopsiak argitu duenez, berrogeita hamar urte inguruko gizonezkoak bi aste inguru zeramatzan hilik. Ez dago zalantzarik itota zendu zela.

Ez du ez agiri ez diru ez telefono ez giltzarik aldean.

HANNA

– Nori deitu behar diozu?

– Poliziari.

– Arduratuko dira bere senideak. Edo lagunak bestela. Ez da zure arazoa.

– Soldata nork ordaintzen didala uste duzu ba?

Ahots bat entzun da telefonoaren beste aldean.

– Bai? Gabon. Hanna Stich naiz. Walter Neumannen etxea garbitzera joaten naiz bi astetik behin... Bai, Leipzigen. Neumann jaunak orain dela bi urte kontratatu ninduen... Ba, kontua da orain dela bi aste zela Leipzigera bueltatzekoa.

Sare orojaleak

Jon Ansolak kazetari ospetsua izan nahi zuen gaztetxoa zenetik. Blok txiki batean oharrak idazten jarduten zuen nonahi, ingurukoari entzungor. Alferrik saiatu ziren gurasoak beren iritziz prestigio handiagoa zuten ikasketetarantz bideratzen. Unibertsitatean lizentziatu zenean, soldata baten truke edozein hedabide handitan lan egiteko gogotsu zegoen.

– Zerrikeria asko ikusi beharko duk –esaten zioten lagunek.

– Ni ez nauk sartuko kontu horietan. Kontratatzen nauenari ez zaiok damutuko. Onena izaten saiatuko nauk.

Lan kaskarrak eta behin-behinekoak izan arren, bere asmoei leial aritu zen. Bazekien ezingo zuela hasieratik nahi zuen guztia lortu. Urteak igaro ziren ordea, eta bere egoera ez zen aldatu. Ohartuta zegoen aitapontekorik ez izatea kaltegarria zela. Hamar urtez batetik bestera ibilita mingostu egin zitzaion aldartea, eta asmo zaha-

rrak higatuta gelditu zirela onartu behar izan zuen.

Hogeita hamahiru urte bete zituen egunean agindu bat inposatu zion bere buruari, zenbait ikaskide makal lanpostu ederrak erdiesten ikusi zituenetik egiteko irrikaz zegoen zerbait: inguruko ustelkeria agerian uzten saiatuko zela promes egin zion bere buruari. Azaleko kontu batzuen berri jakitea ez zuen zaila izan. Baina, kazetari lanbideak ematen zizkion aukerez baliatu arren, kosta egin zitzaion putzu sakonetan murgiltzea.

Trapu zikinen bila ari zela, urtetan ikusi ez zuen Iñaki Tolosarekin topo egin zuen Okendoko parkinean. Jonek bere lan kaskarren ibilbidea laburbildu zion. Iñaki, aldiz, pozik zegoen: zinegotzi, zuzendariorde, Lakua.

– Kazetari lanen bat dagoela jakinez gero, deituko diat.

– Eskerrik asko.

– Ea aurrerantzean zorte hobea daukaan.

– Zortea edo... Eskerrik asko.

Jon inbidiak jota gelditu zen. Unibertsitatean egun osoa kafetegian ematen zuen ikasle eskas horietako bat zen Iñaki. Deigarria zen, Kazetari-

tzan lizentziatutako batek nolatan egin zezakeen lan enpresa bateko zuzendariorde.

Iñaki topatu eta egun gutxira, kazetari lan on bat eskaini zioten Joni, etorkizunera begira aukera handiak eman zitzakeena. Ondoeza supituki desagertu zitzaion. Bere promesari eutsi egingo zion eta, lanpostu berriak eskaintzen zizkion baliabide guztiak erabiliz, hilabete gutxiren buruan datu mamitsu batzuk aurkitu zituen. Erabakita zeukan Iñaki Tolosa izango zela bere jomuga: zinegotzi garaiko eskupekoak, zuzendariorde zeneko dirusari bitxiak, Lakuan adiskideen mesedetan egindako esleipena. Eta abar. Luzeegia hain gaztea izateko. Albiste sorta bat prestatu eta bere saileko buruari emateko ordua iritsi zenean duda-mudatan ibili bazen ere, deliberatua zen hitzari eustera.

Arratsalde hartan bertan erredakziora agertu zitzaion Iñaki Tolosa, egunkariko txori txiki batek deitu ziola eta Jonekin bakarka hitz egin nahi zuela esanez.

– Mesedez, ez ezak hori argitaratu.

– Ezin diat beste alde batera begiratu.

– Aspalditik ezagutzen diagu elkar. Ez ezak argitaratu! Bazter guztietan aurki ditzakek horrelakoak. Ni arrain txikien behargina nauk, besterik ez. Zergatik plazaratu behar dituk nire kontuak?

– Nire lana duk.

– Hire lana? Nik egindako gomendioei esker eman zitean-eta.

Jonek kopeta zimurtu zuen.

– Edonola ere, orain ezin diat atzera egin.

Jon pentsakor geratu zen.

Iñaki zaunka batean hasi zitzaion:

– Bi gauza, Jon. Bat: ez duk albiste hori argitaratuko. Eta bi: hireak egin dik. Hemen ez ditek kontratua berrituko!, dudarik ez egin. Eta jakin ezak, nire esku dagoen guztia egingo dudala kazetaritzan behintzat lanik egin ez dezaan aurrerantzean. Inoiz ez. Ziurtatzen diat leku askotara iristeko gai naizela.

Jon Ansola aulkira lotuta gelditu zen ordu pare batez. Bizitza osoan zuzenean egin zioten lehenengo mehatxu serioa izan zen.

Egunak eman zituen pentsakor. Azkenean, Iñaki Tolosaren bulegora joatea erabaki zuen.

– Barkatu. Azken aldian ez zakiat zertan ari naizen.

– Albistea ez argitaratzeko mesedez eta faborez eskatu nianean, ezezkoa eman hidan. Zergatik lagundu beharko nikek orain? Ez haiz fidatzekoa. Ziur nagok ahal duanean kalte egingo didaala berriro.

Burumakur alde egin zuen. Hiru egunen buruan ikaskide ohiaren bulegora bueltatu eta berak idatzitako txosten bat eskaini zion Iñakiri.

– Denetarik daukak hor: legeari eta moralari buruzko ikastaroan Torraz epaileak nola lapurtu zion kreditu txartela kide bati, gero putetxean ordaintzeko; Donostiako taberna batzuek terrazak jar ditzaten ordaintzen dituzten eskupekoak; lan publikoa lortzeko pertsona batzuek izan duten laguntza. Eta abar luze bat. Baliagarriak izango zaizkiala espero diat.

Haserre ihardetsi zion Iñakik:

– A zer aurkikuntzak! Txikikeriak besterik ez. Eta jende horrek ez zaukak niri faborerik egiteko mailarik.

Jonek beltz ikusi zuen. Etsi-etsian saiatu zen Iñakirentzat baliagarria izan zitekeen informa-

zioa lortzen. Argi zeukan kontratua bukatu arteko denbora horri eskainiko ziola nagusiki. Eguneko lanak doi-doi bete eta bere zeregin berezian ahalegintzen zen ia lorik ere egin gabe. Jon harrituta zegoen bere buruarekin; etsipenak oso eraginkor bihurtu zuela jabetu zen.

Hurrena berriz Iñakiren bulegora joan zenean, ordurako Jonek, nekeak jota, ez zeukan gauzak bi aldiz pentsatzeko tenturik.

– Ea hau zer iruditzen zaian. Bazakiat influentziarik gabe gelditu zaretela banku horretan. Martinez Etxeberria ez duk handienetako bat, baina hari presioa eginez agian lortuko duk zer edo zer. Eta horrekin aski ez bada, hire alderdiko zenbait konturen berri ere jaso diat. Irakurri beste txosten hau.

Iñaki Tolosak betidanik nahi izan zuen lanpostu gailen bat eta ahalik eta soldata handiena. Funtsean hori bakarrik eskatzen zion bizitzari. Bazekien beste guztia berak bakarrik lor zezakeela.

Lan txiki batzuetan ibili ondoren, gurasoen alderdian sartu eta aitak zeuzkan lagunei esker

lortu zuen Donostiako Udaleko zinegotzi postua denbora laburrean. Legegintzaldi baten ostean, alderdiko bere aitapontekoaren bitartez Abegi SAn zuzendariorde izendatu zuten. Han sortu ziren zenbait arazotatik ihesi, Lakuan eskaini zioten lana onartu behar izan zuen. Lakuako soldata merkea ez bazen ere, diru gehiagoren gutizia zeukan. Eta bereziki: egunero Donostiatik Gasteizera joateari utzi nahi zion.

Horrexegatik, Jon Ansolak informazio baliagarriz betetako bi txosten haiek eman zizkionean, eskuetan altxor bat zeukala iruditu zitzaion. Burua hotz mantentzen saiatu zen. Ezer egin aurretik garuna estutu beharko zuen, aukera bakoitzak zein eragin izan zitzakeen hausnartze aldera.

Juan Imazekin hitz egitera deliberatu zen. Iñaki Tolosa alderdian hasi zenetik bere aitaponteko papera jokatzeaz gain, Juanek goi mailako lan zikina egin izan zuen beti alderdian. Jon Ansolaren txostenak deskribatzen zituen jardueren artean, Juan Imazek Ogasunean egiten zuen lanak eman zion atentzio gehien Iñakiri. Ofizialki, dirua zor zuten enpresen kobraketaz ardura-

tzen zen Imaz jauna, baina aldi berean, eskupekoen truke zorrak birnegoziatzen zituen, eta horrela enpresek gutxiago ordaindu behar izaten zuten, Ogasunak gutxiago kobratzen zuen, eta alderdiak finantzatzeko iturri beltz oparo bat lortzen zuen. Baina Jon Ansolaren txostenak goi mailako alderdikideentzat jakina zena baino gehiago ere azaltzen zuen: itxuraz, operazio horietan Imaz jaunak alderdiari aitortzen ziona baino gehiago hartzen zuen bere kolkorako. Iñaki Tolosak Juan Imazi presioa bide horretan egitea pentsatu zuen hasieran, Imaz jaunarengandik orain arte baino etekin handiagoa lortze aldera. Alta, bide horren arriskuaz jabetu zen segituan, eta baztertu egin zuen. Eta ondorioz, Martinez Etxeberriaren kontuarekin agertu zitzaion Imaz jaunari.

– Martinez jaunari edo bere gisako bati mehatxu egitea Pandoraren kutxa irekitzea da, Iñaki. Zuk lepora diezaiokezun edozein gauzaren pareko zerbaitekin salatuko zaitu zu. Teniseko partida bat bihur daiteke. Ero batek besterik ez luke egingo. Jakin dezazun, gure alderdiari mailegu ezin merkeagoak eman dizkio banku horrek

azken hogeita hamar urteetan, eta batzuetan alderdiak itzuli ere ez ditu egin. Zalantzarik gabe esan diezazuket ez zirela doako maileguak.

Iñaki Tolosa etsita irten zen Juan Imazen klubetik. Ez zekien nola baliatu Jon Ansolak emandako informazioa. Eta informazioa baino gauza garestiagorik ez dagoenez, ezin zion bere buruari merkekeriarik ametitu.

Gau hartan bertan telefonoz deitu zion Jon Ansolak:

– Hitz egin al duk Martinez jaunarekin?

– Ez.

– Beraz, ez diok deituko...

– Begira, Jon: orain ezinezkoa duk hire kontratua berritzea. Nire eskumenetik kanpo zagok.

– Baina gutxienez aurrerantzean...

– Hik utz nazak bakean eta nik ez diat hire aurka ezer egingo.

– Ez daukak Martinez jauna presionatzeko asmorik. Alferrik ari nauk hire barkamena irabazi nahian, ezta?

– Bihar joango nauk Martinezengana. Ez zaukaat beste erremediorik. Bestela, hire zaku berean sartuko naik.

– Zer esan behar diok?

Pedro Martinez Etxeberriaren asmoa banku ezagun baten zuzendaritzan postu garrantzitsu bat izatea zen, diru afera handien saltsan eskua sartu ahal izateko. Finantzen munduan lan egiten zuen sendi batetik zetorren eta bazekien nondik jo bere xederantz. Gaztaroan bertako banku handiena zen horretan bidea egitea lortu zuen, baina goranzko urratsean zihoala, bankuaren baitan elkarren arerio ziren zenbait talde topatu zituen, eta berehala ulertu zuen gailurrera iristeko ezinbestekoa zela lagun aproposak egitea. Pedrok aukeratu zuen taldeak, ordea, porrot egin zuen gehienetan eta, beraz, taldekideen patua oso argi gelditu zen: goi mailako lan zikina egin beharko zuten, edo bestela bankutik alde egin. Pedrok bere jomugara ailegatuko ez zela jakin arren, ondo ordaindutako postua zeukan. Ingurukoek notable bati bezala begiratzen zioten, nahiz eta bankuen munduan ezezaguna izan. Eta azkenean, etsita baina harrotasuna

mantendu nahian, bankuko zuzendaritzaren iturgin lanetara moldatu zen.

Iñaki Tolosa bulegora agertu zitzaionean, zeregin bat gehiago bezala hartu zuen Pedrok. Aspaldi hartan Tolosaren alderdia eta Martinez Etxeberriaren bankua ez ziren hain lagunak, baina elkarri faboreak egiten jarraitzen zuten, ohikoa den bezala.

– Nola ez zaitut ba ezagutuko –esan zion Pedrok, nahiz eta Donostian zinegotzia izan zela besterik ez zekien berari buruz, segundo batzuk lehenago bere idazkariak jakinarazita.

Urduri samar antzeman zuen Tolosa jauna. Alderdiaren partetik albiste txarren bat ematera edo mehatxuren bat egitera zetorrela iruditu zitzaion.

– Zuri buruzko informazioa eman digute, Martinez jauna. Bankuko zenbait goi karguren erretiroa kudeatzen ari zinela, legez kanpo sekulako dirutza mugitu duzula adierazi digute. Zuen akziodunei eta epaile bakan batzuei albistea ez zaiela gustatuko suposatu dugu, eta horrexegatik nago hemen. Guk, jakina, ez dugu ezer egingo kontu horrekin. Gure arteko harreman ona

gauza horien guztien gainetik dago. Zuk jakitea besterik ez dugu nahi.

Informazio iturria zein zen zehatz-mehatz argitu zion Tolosak.

Eta Martinez Etxeberriak eskerrak eman zizkion:

– Utzi kontua nire esku. Ikusiko dugu nola buelta diezazukedan faborea.

Horrelako albisteek ez zuten Pedro kezkatzen. Makina bat iritsi zitzaizkion urtetan, eta arazo handirik gabe isilarazi zituen denak. Berehala ahaztu zuen Tolosa jaunak kontatutakoa. Zeregin ugari zeuzkan esku artean eta bulegoan buru-belarri aritzeko asmoz piztu zuen ordenadorea.

Handik gutxira, ordea, idazkariak deitu zion esanez, Jon Ansola izeneko kazetari gazte bat zuela berarekin hitz egiteko zain. Pedrok istantean gogoratu zuen gaztearen izena, orduantxe emana baitzion Iñaki Tolosak.

– Agindu segurtasunekoei, kalera bota dezatela segituan!

Biharamunean Jon Ansola izeneko hori bera berriro bulegora bueltatu zen eta berriro bota

zuten kalera. Bi aste eman zituen Ansolak Martinez Etxeberriarengana joaten. Segurtasunaren zaintzaileek gaztea ondo ezagutzen zutenez, bankuaren eraikinera sartzen ere ez zioten uzten, nahiz eta bankuan dirua sartzera zetorrela eta gero mailegu bat eskatu nahi zuela adierazi.

Jon Ansolak ez zuen itxaropenik galdu, ez zeukan galtzeko ezer. Pedro etxera joaten zenero, zain izaten zuen atetik hurbil. Poliziari deitu zionean utzi zion han ingurura agertzeari. Baina orduz geroztik bazter guztietan izaten zuen esperoan: tabernetan, bileretan, gimnasioan. Jon Ansola beti iristen zen lehenago.

Antzinako kotxeen erakusketa bat ikustera joan zen batean ere hantxe topatu zuen gaztea.

– Badakit zalea zarela, eta badakit nola lortu honelakoak merkeago. Alemaniatik ekartzen dituzte. Ez da legez kontrakoa, legearekiko paraleloa besterik ez.

Gazteak ustelkeriari buruzko informazioa eskaintzen zion etengabe. Bere probetxurako erabil zezan nahi zuen eta, bide batez, egindako ofentsa barka ziezaion.

Ia hilabete igaro zen horrela. Iluntze batean Pedro maitalearen etxera joan zelarik, atari ondoan aurkitu zuen kazetaria. Egunsentian maitalearen etxetik irten eta gaztea bertan zegoela ikusita, berarekin gizalegez hitz egitea erabaki zuen.

– Honela segitzen baduzu, astindu txiki bat eman diezazuten agindua eman beharko dut.

– Ez ezazu pentsa ero bat naizenik, Martinez jauna. Fabore bat eskatzearren nabil zure atzetik.

Paperez betetako kaxa bat eman zion gazteak.

– Ustelkeria kasuak dira. Baliagarriak izango zaizkizula espero dut. Etxean beste hiru kaxa gehiago dauzkat. Urtebetean beste hamar lor nitzake. Ustelkeria, Martinez jauna, kirol nazionala da.

– Etorri astelehenean nire bulegora.

Astelehenean Jon Ansolak arazoak izan zituen bankuaren eraikinera sartzeko, segurtasun arduradunek gaztea hurbiltzen ikusi bezain azkar Poliziari deitu baitzioten. Baina Pedro Martinez Etxeberria jaunak argitu zuen gaizkiuler-

tua, eta Ansolari barkamena eskatu eta bulegora gidatu zuten. Ansolaren txosten batzuk mahai gainean irekita zeuzkan Pedrok.

– Ohartu naiz informazio andana biltzeko gai zarela, anbizioa daukazula eta helburua lortu arte ez duzula etsitzen.

Klase gabeko jendaila iruditzen zitzaionarekin tratuak izan beharraz nazkatuta zegoen arren, urteen poderioz Pedro paperean sartzen hasia zen, eta parean zuenak bere hitzak sinesten zituela ikusita, atsegin zuen aktore izatea.

– Argi dago, Ansola, zu bezalako pertsona bat hobe dela etsai baino lagun izatea. Bikain betetzen duzu zeure lana. Baina momentuz ahaztu orain artekoak. Etekin bereziak emango dizkigun operazio bat dugu abian, Kantabriako banku horrek Marcano Suministros Marítimos SA enpresarekin egin zuen haren antzekoa. Ezagutzen duzu kasua?

– Ez zen batere operazio txarra izan.

– Tira, haiek baino hobeak gara gu.

Luis Garciak txikitatik zekien aitaren enpresaren batean lan egingo zuela, aita bazkide nagusietako bat baitzen Gipuzkoako altzairugintzako zenbait enpresetan. Hartara, unibertsitatean Enpresaritza ikasketak burutu eta aitaren enpresetan postuz postu aritu zen, aitaren gidaritzapean, enpresa horien nondik norakoak semeak bertatik bertara ikas zitzan nahi baitzuen, betiere bulegoetan, tailerretara jaitsi beharrik izan gabe. Urte gutxiren buruan goi zuzendaritza postuetan zebilen Luis Garcia. Orduan hasi zen bere gutizia garestiak asetzen: bidaiak eta, batez ere, garai bateko kotxeak.

90etako hastapenetan, Pasaiako portuko zerbitzuen pribatizazioari esker, Luisen aitak enpresa apal bat handi eta sendo bihurtu zuen eta, ondo bideratuta zegoela ikusi zuenean, zuzendari izendatu zuen semea. Bi aholku eman zizkion:

– Bat: beti jakinaren gainean egon zer gertatzen ari den enpresan; enpresako atal guztietan konfiantzazko jendea jarrita daukat. Eta bi: ondo zaindu enpresatik kanpoko lagunak.

Lehen helburua betetzeko, Luisen aitak Josu Igarari emana zion kudeatzaile nagusi postua.

Urrun gelditzen zitzaion pertsona hura jartzea boteretsu batzuei fabore bat egitea bezalakoxea zen. Horrela ez zitzaizkion kontra jarriko. Eta agian noizbait babesa emango zioten. Horregatik, izendapenetik bi urtera Igara jauna droga trafiko kontu batean nahasia egon zitekeela ikusi zenean ere kudeatzaile nagusi postuan jarraitu zuen, Luisen aitaren aginduz.

Luisi desatsegina iruditu zitzaion aitaren erabakia, enpresako kontuez arduratzea nekeza iruditzen zitzaion hein berean. Baina aitaren itzala luzeegia zen. Eta batez ere, Luisen helburuak enpresatik kanpo zeuden: bidaiak eta garai bateko kotxeak. Ordurako munduko bazter ugari luxu handiz bisitatuak zituen eta bere kotxeen bilduma handitzen hasia zen.

Luisek berrogeita hamar urte bete zituenean hil zitzaion aita. «Hil da jainkoa» idatzi zuen baten batek komuneko ate batean. Hasieran aitaren enpresen arteko lotura ahuldu eta gero hautsi egin zen, eta Luisi herentzian dirutza eta Pasaiako portuko enpresaren jabetza gelditu zitzaizkion. Erretiroa hartzen hasteko garaia zela erabaki zuen. Berrogeita bost urtetik gorako en-

plegatu guztiak kale gorrian utzi eta haien lekuetan gazteagoak kontratatu zituen, azkarrago eta merkeago lan egiten baitzuten. Eta Josu Igararen ordez bere ikaskide ohi bat jarri zuen.

Beste zenbait aldaketa doitu ondoren, enpresara ahal bezain gutxi agertzen hasi zen. Luis Garcia jabe bakar bihurtua zenez gero, kudeatzaile nagusi berriaren eskuetan zen zuzendaritza. Baina egun batez oso urduri agertu zitzaion kudeatzailea:

– Bankuak hilabete honetan maileguaren kuota ordaindu ez dugula adierazten duen agiri bat bidali digu. Badakizu, aldaketak egiteko eskatu genituen 781.283 euroen mailegua.

– Ez al daukagu, ba, ordaintzeko dirurik?

– Bai, jauna. Bankuan bertan dauden kontu korronteetan nahikoa eta soberan dago.

– Eta orduan?

– Bankuaren akats bat izango da.

– Deitu bankura, ordaindu eta kito.

– Berez hala izan beharko luke, baina ezagutzen duzu Kantabriako enpresaburu horri gertatu zitzaiona... Agustin Perez delako horri. Ba, kasu hori beste askoren artean bat gehiago bes-

terik ez da. Uste dut hobe dela zuk zeuk bankuarekin lehenbailehen hitz egitea.

– Mesedez! Hori zure lana da!

Kudeatzaile berria bulegoz bulego ibili zen bankuan. Irribarre hutsalak eta hitz lasaigarriak besterik ez zituen aurkitu. Kudeatzaile berria erabat etsita agertu zitzaion egunean, Luis Garciak egunero eskelak eta futbolari buruzko berriak irakurtzeko erosten zuen egunkaria zeukan mahai gainean. Kudeatzaile berriari egunkariak zekarren albiste bat seinalatu zion: Luisen enpresari buruzkoa zen eta azken aldiko kudeaketa txarra zuen hizpide. Hurrengo egunetan ere agertu ziren gisako artikulu gehiago: enpresaren egoera txarraz mintzo ziren, zorrak ordaintzeko zailtasun gaindiezinak izan zitzakeela iradokitzen zuten.

– Egia al da hau guztia?

– Badakizu ezetz, Luis. Ez dakit nondik atera duten, ezta zertarako ere.

Jon Ansola izeneko batek sinatzen zituen artikuluak. Goitizen bat izango zela pentsatu zuten, atzean zegoena ezkutatzearren.

Bankuak epaitegien bideari ekin zionean, abokatuak lasaitu egin zuen Luis.

– Ez dute ezer lortuko. Ez dira legezko prozedurak errespetatzen ari. Lehenik zorra zenbatekoa den argitu behar dute, bezeroak zenbateraino ordain dezakeen, zuen kontuak likidatu, eta abar. Luze jo dezake, baina ez dizuete sosik lapurtuko. Gainera, zuek beti izan zarete banku horren bezero oso onak, ezta?

Alabaina, epaitegietan prozedurak aurrera egin ahala, egunkarian agertu zena egia bilakarazi zuten: epailearen eta enparauen sormen handiko kontabilitateari esker, enpresaren merkatuko balioa txikitu egin zen, eta enpresaren zorrak, aldiz, erraldoi bihurtu. Hartara, lehendabizi, Luisek Donostian zeuzkan etxebizitza batzuk bereganatu zituen bankuak. 1.240.000 euroko balioa zuten arren, bankuak balioaren laurdena ere aitortu ez zienez, Luisen jabetza gehienak hartu zituen ustezko zorra kitatu arte. Luis Garciak berandu jakin zuen Pedro Martinez Etxeberria izeneko bat zebilela operazioaren buru, antzinako kotxeen enkante batean ezagutu zuen huraxe bera. Martinez jaunak, bankutik, salneu-

rri irrigarri batean eskuratu zituen Luisenak izandako kotxe guztiak. Azkenerako, emaztearen izenean zeuzkan etxebizitza pare bat bakarrik gelditu zitzaizkion Luisi. Senideek lanpostu berri bat eman zioten berehala, baina Luisek espero zezakeena baino askoz gutxiago babestu zuten diruz.

Bankuak Pasaiako portuko enpresaren jabetza lortu bezain azkar zuzendari izendatu zuen Iñaki Tolosa. Luis Garciak jakin zuenez, enplegatuak izututa zeuden. Tolosa jaunak lehenengo egunean bertan kaleratu zuen neska gazte bat, azken urteetan enpresan izandako eraginkorrena, dirudienez aurretik Tolosarekin lan egindakoa.

– Eguerdia baino lehen etorri zen. «Badakizu hemen ez duzula tokirik», esan zion. Horixe besterik ez zion esan. Eta esperoko balu bezala, neska gaixoak bere gauzak bildu, denoi agur esan eta joan egin zen. Ez sinestekoa, Luis.

Zuzendari berriaren eskuetan enpresak aste gutxitan hondoa joko zuela uste zuten.

Orain Luisi hori guztia berdin zitzaion. Bazekien aurrerantzean oso zaila izango zela kotxe

handi arrunta ez zen ibilgailu bat gidatzea. Eta ahaztua zuen Amerika osoa pausoz pauso deskubritzeko asmo zaharra.

Atzo arratsean Jon Ansolak deitu zidan.

– Zer moduz?

– Ondo. Zer ba?

– Hire anaiari buruzko gauza bat kontatu behar diat. Kafe bat hartuko diagu bihar?

– Arratsaldean beharko dik.

– Hobe goizeko hamarretan. Ados?

Eskerrak eman nahi dizkizuet
liburu hau egiten
modu batera edo bestera
lagundu didazuenei:

Alo, Ibai, Oier, Colme, Rive,
Irati, Gorka, Sebita, Peruarena, Iratxe,
Urtzi, Mendi, Kote, aita, ama.